"Proiektu politikoen arteko lehiak aldaketaren norabidea definituko du. Marko demokratikoaren gauzapenaren bermea proiektu independentista eta sozialistaren indarrean datza."

Azalpena

Erredakzioan lehenesten da helburu taktikoen lorpena, marko demokratikoa. Helburu taktiko eta estrategikoen arteko harremanak dialektikoak dira, ez baitoa bata bestearen aurretik. Egunez egun, borrokaren bidez, gure helburu estrategikoen eraikuntzak baldintzak sortzen ditu helburu taktikoak lortzeko. Zentzu berean, helburu taktikoen lorpenak helburu estrategikoetan aurreratzeko baldintza berriak sortzen ditu. Elkarri loturik daude, baina ezin dugu ahaztu helburu estrategikoek proposamen taktikoei zentzua ematen diotela; bestela erreformismoan erori gaitezke. Hitzarmen kolektiboak sinatzerakoan horrelako zerbait gertatzen da: borrokaren zentzu estrategikoa galtzen dugunean, eztabaida guztia sinatzea ala ez bihurtzen da. Sinatzea ala ez, borroka osoaren testuinguruan eta norabidean kokatu behar dugu lortzen duguna, lortzen ez duguna,....

Párrafo 195. Página 29.

Proposamena

Cambiar el párrafo por el siguiente texto:

"La disputa entre proyectos políticos definirá la dirección del cambio. La garantía de que se materialice el marco democrático consiste en la fuerza del proyecto independentista y socialista"

Azalpena

En la redacción se prioriza la consecución de los objetivos tácticos, el marco democrático. Las relaciones entre los objetivos tácticos y estratégicos son dialécticas, ya que no van unos por delante de los otros. Mediante la lucha diaria la consecución de objetivos estratégicos crea condiciones nuevas para lograr objetivos tácticos. En el mismo sentido, coneguir objetivos tácticos crea nuevas condiciones para avanzar en objetivos estratégicos. Están unidos, pero no podemos olvidar que los objetivos estratégicos dan sentido a las propuestas tácticas, si no podríamos caer en el reformismo. Al firmar los convenios colectivos sucede algo parecido: cuando perdemos el sentido estratégico de la lucha, todo el debate se reduce a firmar o no firmar. Aquello que conseguimos o no debemos situarlo en el contexto y la dirección de toda la lucha.

Emendagilea: Isidro Esnaola Herrero

108. emendakina

Párrafo 197. Página 30.

Propuesta

Suprimir "tener la oportunidad" y la segunda frase del párrafo, por lo que quedaría de la siguiente manera:

"Los y las trabajadoras debemos construir el Estado Socialista Vasco"

Motivos

Pretender que el Estado Socialista Vasco sea para el sistema un derecho y, peor aún, confundir la construccion de una verdadera resolución democratica (ruptura que no se hizo con la muerte de Franco) es, como poco de una ceguera dialéctica insoportable. Pero vuelvo a insistir, desde una óptica marxista esto sigue teniendo un preocupante tono socialdemócrata.

197. paragrafoa. 29. orrialdea.

Proposamena

Paragrafotik "aukera" eta bigarren esaldi osoa kendu. Beraz, honelaxe geldituko litzateke:
"Langileok Euskal Estatu Sozialista eraiki behar dugu"

Azalpena

Euskal Estatu Sozialista sistemarentzat eskubidea izan dadin nahi izatea eta, are txarrago, benetako erresoluzio demokratikoa nahastea (Francoren heriotzaren ostean burutu ez zen apurketa) itsukeria dialektiko jasanezina da. Baina, berriro ere, ikuspuntu marxistatik honek itxura sozialdemokrata kezkagarria dauka.

Emendagilea: Joseba Arenzana Villar

109. emendakina

198 paragrafoa. 29. orrialdea.

Proposamena

Paragrafoaren ordez, hurrengo testu hau ipini:
"Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntza prozesua da. Euskal Herritar moduan pentsatu, aritu eta borrokatzen garen neurrian, Euskal Estatua eraikitzen ari gara. Esplotazioa eta zapalkuntzaren aurka pentsatu, aritu eta borrokatzen garen neurrian Estatu Sozialista eraikitzen ari gara. Euskal Estatu Sozialista herritarron erabaki sozial eta politikoak hartzetik eraikiko dugu."

Azalpena

Paragrafoa zentzu negatiboan dago idatzita. Mezu garrantzitsuena modu positiboan formulatuko dugu.

Párrafo 198. Página 29.

Propuesta

Sustituir el párrafo por el siguiente texto:
"La construcción del Estado Socialista Vasco es un proceso. En la medida en que pensemos, actuemos y luchemos como ciudadanas y ciudadanos de Euskal Herria, estamos construyendo el Estado Vasco. En la medida en que pensemos, actuemos y luchemos contra la explotación y la opresión, estamos construyendo el Estado Socialista. El Estado Socialista Vasco será consecuencia de las decisiones sociales y políticas de la ciudadanía"

Motivos

El párrafo está construido de un modo negativo. Debemos formular el mensaje más importante positivamente.

Emendagilea: Isidro Esnaola Herrero

110. emendakina

Párrafo 198. Página 30.

Propuesta

Suprimir "tampoco va a ser consecuencia de un acontecimiento político concreto" de la frase "No vamos a crear un Estado Socialista Vasco de un día para otro y tampoco va a ser consecuencia de un acontecimiento político concreto".

Motivos

La revolución socialista (y no en Portugal, ni en Chile, ni en Italia... y así les fue) es un acontecimiento político concreto que ya demostró su utilidad.

198. paragrafoa. 29. orrialdea.

Proposamena

"Euskal Estatu Sozialista ez da egun batetik bestera eraikiko eta ez da getaera politiko zehatz baten ondorioa izango" esalditik "eta ez da getaera politiko zehatz baten ondorioa izango" kendu.

Azalpena

Iraultza sozialista (eta ez Portugalen, Txilen edo Italian... horrela suertatu zitzaien eta) gertaera politiko zehatza da eta bere erabilgarritasuna erakutsi egin du.

Emendagilea: Joseba Arenzana Villar

111. emendakina

199. paragrafoa. 29. orrialdea.

Proposamena

Paragrafoa kendu

Azalpena

Proiektuari buruz ari gara eta proiektua egunez egun eraikitzen dugu. Beraz, hemen ez du lekurik marko demokratikoaz hitz egitea.

Párrafo 199. Página 30.

Propuesta

Suprimir el párrafo

Motivos

Estamos hablando del proyecto y ese proyecto lo construimos día a día. Por tanto, aquí no tiene sentido hablar del marco democrático.

Emendagilea: Isidro Esnaola Herrero

112. emendakina

200. paragrafoa. 29. orrialdea.

Proposamena

Paragrafoaren ordez, testu hau ipini:

"Zentzu horretan, gure proiektu politikoaren eraikuntzan sindikalismoa eta herri mugimenduek berebiziko garrantzia dute. Horregatik, sindikalismo eta herri mugimenduaren arteko elkarlana bultzatuko dugu, herri mailatik hasita nazio mailaraino, Nazio Eztabaidarekin egin dugun moduan."

Azalpena

Paragrafo honen hasiera 198. paragrafoan jasota dago. Proiektua erabaki kolektiboen bitartez eraikiko dugunez, antolakuntza soziala eta sindikala eta beraien arteko elkarlana garrantzi berezia du.

Párrafo 200. Página 29.

Propuesta

Sustituir el párrafo por el siguiente texto:

"En ese sentido, en la construcción de nuestro proyecto político el sindicalismo y los movimientos populares tienen una especial importancia. Por eso, impulsaremos la colaboración entre el sindicalismo y los movimientos populares, desde el nivel local haste el nacional, tal y como hemos hecho con el Debate Nacional"

Motivos

El comienzo de este párrafo está recogido en el párrafo 198. Ya que construiremos el proyecto mediante decisiones colectivas, la organización social y sindical y so colaboración tiene una importancia especial.

Emendagilea: Isidro Esnaola Herrero

113. emendakina

Párrafo 201. Página 30.

Propuesta

Sustituir "Debemos ir estableciendo las bases del modelo económico y social de nuestro Pueblo: identitario, que recoja los valores feministas, que tenga en cuenta la evolución de la sociedad... y desarrollarlo paso a paso" por:

"Debemos ir estableciendo un modelo económico y social basado en la igualdad real de todas las personas y de los grupos humanos que éstas conforman"

Motivos

Decir hoy que apostamos por un socialismo "identitario" es no decir nada, o es un mero pleonasmo, pues por definición, todo socialismo debe ser fruto de las características y de las opciones de los Pueblos que lo ponen en práctica, si lo que queremos decir es que no actuamos bajo fórmulas de socialismo importadas de otras experiencias. Del mismo modo, decir que propiciamos un modelo feminista ya no es decir nada puesto que el "feminismo" ha sido desde hace tiempo utilizado por el sistema como celofán de modernidad y democracia para ocultar la eclosión de lobys de mujeres al servicio del sistema opresor bajo el paraguas de "feminismo", que ha resultado ser mero nominalismo los-las. Lo propio ha ocurrido con el ecologismo etc. El Poder capitalista se apropia del nombre y castra todo su contenido revolucionario

201. paragrafoa. 30. orrialdea.

Proposamena

"Bertoko eredu ekonomiko eta sozialaren oinarriak finkatzen joan behar gara: identitarioa, balio feministak

jasotzen dituena, jendartearen bilakaera kontuan hartzen duena... eta urratez urrats garatu" esaldiaren ordez, hurrengo hau ipini:
"Pertsona eta hauek osatzen dituzten giza talde guztien berdintasuean oinarritzen den eredu ekonomiko eta sozia-la ezartzen joan behar gara"

Azalpena
Gaur egun sozialismo "identitarioaren" aldeko apustua egiten dugula esatea alferrikakoa da, edo pleonasmo hutsa da, definizioaz, sozialismo guztiak izan behar direlako praktikan jartzen duten Herien ezaugarri eta aukeren emaitza, edo esan nahi duguna da beste esperientzia batzuetatik inportatutako formulen arabera jokatzen ez dugula. Era berean, eredu feministaren alde egiten dugula esatea ere alferrikakoa da, sistemak "feminismoa" aspladitik erabili izan duelako modernotasun eta demokrazia mozorro moduan, sistema opresoraren alde egiten duten emakumeen lobbyak ezkutatzeko, eta "los-las" aipamen hutsa bilakatu da. Gauza bera gertatu da ekologismoarekin, e.a. Botere kapitalistak izena bereganatzen du eta bere eduki iraultzailea suntsitzen du.

Emendagileak: Manu Aranburu eta J. Kerejeta

114. emendakina
Párrafo 204. Página 30.

Propuesta
Modificar el párrafo de la siguiente manera:
"[...] La reivindicación y el desarrollo de nuestro proyecto es un activo político que debemos dimensionar en esta fase en la que el *proceso de* cambio *hacia el socialismo* está en juego"

Motivos
Pienso que, siendo la ponencia un texto dirigido a la clase trabajadora, debe definir mejor hacia quá clase de "cambio" queremos dirigirnos.

204. paragrafoa. 30. orrialdea.

Proposamena
Testua honelaxe moldatu:
"[...] *Sozialismoranzko aldaketa prozesua* jokoan dagoen fase politiko honetan, gure proiektuaren aldarrikapena eta garapena dimentsionatu behar dugun aktibo politikoa da."

Azalpena
Ponentzia langileriari zuzendutako testua den heinean, uste dut hobeto definitu behar duela zein "aldaketa" mota lortu nahi dugun.

Emendagilea: Mikel Pikaza Zabala

115. emendakina
204. paragrafoa. 30. orrialdea.

Proposamena
"[...] euskal burguesiek eta egungo markoetan negozioa bermaturik daukaten esparru politikoek [...]" esapidearen ordez, "[...] euskal *burgesiak* eta egungo *marko juridiko-politikoan* negozioa bermaturik daukaten esparru politikoek [...] erabili"

Azalpena
Euskal burgesia bat da, barnean sentsibilitate ezberdinak badaude ere (gehiena PNVn eta PPn kokatzen da), finean, interes bera dute helburu: negozioa. Bere joko eremu erosoa ere bakarra da, egungo marko juridiko-politikoa, hain zuzen.

Párrafo 204. Página 30.

Propuesta
Sustituir "[...] desde las burguesías vascas y desde espacios políticos que tienen el negocio garantizado en los actuales marcos." por "[...] desde *la burguesía vasca* y desde espacios políticos que tienen el negocio garantizado en *el actual marco jurídico-político*."

Motivos
La burguesía vasca es una. Aunque dentro haya distintas sensibilidades (la mayoría se situa en el PNV y el PP), al fin y al cabo tienen un único interés como objetivo: el negocio. Su cómodo campo de juego también es uno solo, el marco jurídico-político actual.

Emendagilea: Juan Karlos Aretxabaleta

116. emendakina
Párrafo 209. Página 31.

Propuesta
Añadir lo siguiente: "[...] influir en las decisiones que se toman en esos núcleos de poder que están en manos de unas y unos pocos, *y poder influir también en las decisiones finales, que se adoptan desde las instituciones públicas en aplicación de las líneas marcadas por el neocapitalismo*"

Motivos
Para mejorar la frase

209. paragrafoa. 30. orrialdea.

Proposamena
Hurrengo hau gehitu: "[...] gutxi batzuen eskuetan daudden botere guneetako erabakietan eragin dezagun *eta neokapitalismoak markatzen dituen ildoen arabera erakude publikoek hartzen dituzten azken erabakietan ere eragin dezagun.*"

Azalpena
Esaldia borobiltzeko

Emendagilea: Aitziber Barandika

117. emendakina
Párrafo 210. Página 31.

Propuesta
Suprimir la expresión "de clase" todas las veces que aparece en el artículo 210

Motivos
El sindicalismo es de clase o no es tal; si acaso, lo sería el viejo trade-unionismo y/o el gremialismo, cuando no el pseudosindicalismo creado por algunas administraciones y/o empresas para debilitar con planteamientos interclasistas a las y los trabajadores, a la clase trabajadora a la que se debe por completo un sindicato como LAB.

210. paragrafoa. 30. orrialdea.

Proposamena
"Klase" hitza kendu paragrafo osotik.

Azalpena
Sindikalismoa klase sindikalismoa da edo ez da sindikalismoa, bestela, langileak ahultzeko planteamendu interklasistak erabiltzen zituzten trade-unionismoa edota gremialismoa, baita administrazio eta enpresa zenbaitek sortutako sasisindikalismoa ere izango lirateke.

Emendagilea: Joseba Arenzana Villar

118. emendakina
Párrafo 212. Página 31.

Propuesta
Suprimir "si existe una voluntad real de las instituciones". La frase quedaría de la siguiente manera:
"La mayoría de las reivindicaciones de la clase trabajadora exigen promover cambios políticos de fondo."

Motivos
Si es una exigencia no caben condicionantes

212. paragrafoa. 31. orrialdea.

Proposamena
Paragrafotik "baldin eta instituzioen aldetik konponbideak bilatzeko benetako borondaterik badago" kendu.
Honelaxe geldituko litzateke:
"Langile klasearen aldarrikapen gehienek sakoneko aldaketa politikoak sustatzea esakatzen dute"

Azalpena
Aldarrikapena bada, ez dago baldintzetarako tokirik

Emendagilea: Aitziber Barandika

119. emendakina
Párrafo 213. Página 31.

Propuesta
Modificar la primera frase y dividir el párrafo en dos. Quedaría de la siguiente manera:
"(213) LAB apuesta por un modelo *de desarrollo que articule la eficacia económica con el desarrollo social, político, ecológico, lingüístico-cultural, en el que los trabajadores y trabajadoras recuperen su condición de sujeto del proceso, abarcando así la dimensión integral y global de la sostenibilidad del desarrollo, que necesariamente deberá ser solidario con las generaciones venideras*"

(214) La paridad es un objetivo de principio en este [...]"

Motivos

Así se desglosa mejor el párrafo y se incide mejor en la primera idea.

123. paragrafoa. 31. orrialdea.

Proposamena

Lehenbiziko esaldia aldatu eta paragrafoa erdibitu. Honelaxe geldituko litzateke:

"(213) Lortu nahi dugun *garapen ereduak eraginkortasun ekonomikoa eta garapen sozial, politiko, ekologiko eta linguistiko-kulturala artikulatu behar ditu eta langileak berriro bilakatu behar dira prozesuaren protagonista. Honela, ezinbestez hurrengo belaunaldiekin solidarioa izan behar den garapen iraunkorraren dimentsio integral eta globalari eutsiko zaio.*

"(214) Parekidetasuna hasieratik finkatutako helburua da [...]"

Azalpena

Honela paragrafoa hobeto banatzen da eta lehenbiziko ideia hobeto azpimarratzen da.

Emendagilea: Aitziber Barandika

120. emendakina

213. paragrafoa. 31. orrialdea.

Proposamena

Paragrafoaren ordez, testu hau ipini:

"Lortu nahi dugun ereduak lana eta aberastasunaren banaketa, eskubideen onarpenetan oinarritutako justizia soziala, langileriaren beharrizanei erantzungo dion garapen ekonomikoa, mundu ikuspegiaz ariko den lekuko ingurumenaren berreskurapena eta baliabide naturalak zainduko ditu. Eredu alternatibo honetan, funtsezko edozein aldaketaren aurrean erreferendumak ahalbideratuko dira herritarron hitza errespetatzeko, estrategikoak diren egitasmoetan aurrekoa ezinbestekoa izanda."

Azalpena

Gure ereduak alternatiboa izan nahi badu, herritarroi parte hartzeko aukera eman behar digu. Gainera egitasmo estrategikoei erreparatuz gero, (AHT, Boroa, Itoiz, kostaldeko eraikinak,...) herritarroi galdetzea demokrazia partizipatiboaren ariketa praktikoa da.

Párrafo 213. Página 31.

Propuesta

Sustituir el párrafo por el siguiente texto:

"LAB apuesta por un modelo que garantice la redistribución de la riqueza y el reparto del trabajo, una justicia social basada en el reconocimiento de los derechos, un desarrollo económico que responda a las necesidades de la clase trabajadora, los recursos naturales y la recuperación del medioambiente local con una visión global. En este modelo alternativo se promoverán referendos ante cualquier cambio drástico, con el fin de respetar la palabra de la ciudadanía, siendo imprescindible lo anterior para los proyectos estratégicos."

Motivos

Si nuestro modelo pretende ser alternativo, debe darnos la posibilidad a las ciudadanas y ciudadanos de participar. Además, si nos fijamos en los distintos proyectos estratégicos (TAV, Boroa, Itoiz, edificación en

la costa) preguntar a la ciudadanía es un ejercicio práctico de democracia participativa.

Emendagilea: Juan Karlos Aretxabaleta

121. emendakina

Párrafo 213. Página 31.

Propuesta

Modificar el párrafo de la siguiente manera:

"LAB apuesta por un modelo *socialista* que garantice la redistribución de la riqueza, la eficiencia social, un desarrollo económico equilibrado, la defensa del medioambiente y los recursos naturales. La paridad *real, según la composición de la militancia,* es un objetivo de principio en este nuevo modelo; por lo tanto, es un modelo que debe construirse estableciendo instrumentos para superar la discriminación de las mujeres y para asegurar una verdadera igualdad de oportunidades. *LAB, en difinitiva, debe luchar contra toda forma de opresión.*"

49. paragrafoa. 11. orrialdea.

Proposamena

"Lortu nahi dugun eredu *sozialistak* aberastasunaren banaketa, eraginkortasun soziala, garapen ekonomiko orekatua, ingurumenaren defentsa eta baliabide naturalak zainduko ditu. Parekidetasun *erreala, militantziaren osaketaren arabera,* hasieratik finkatutako helburua da eredu berri honetarako; berz, emakumeen diskriminazioa gainditzeko eta benetako aukera berdintasuna bermatzeko bitartekoekin eraiki behar den eredua da."

Emendagileak: Manu Aranburu eta J. Kerejeta

122. emendakina

Párrafo 216. Página 32.

Propuesta

Añadir a "que tienen como objetivo la pura extensión del mercado" *"es decir, beneficios privados y peor calidad del servicio".*

Motivos

En Alemania hace una década que han privatizado el teléfono, el agua, la electricidad y el resultado son aumentos espectaculares de beneficios y una pésima gestión del servicio. En Inglaterra lo mismo y ahora vuelven a prenacionalizar los ferrocarriles, por el estado pésimo de mantenimiento de las vías (catenarias) y trenes. En el estado español pasa lo mismo con el gas, la electricidad y Telefónica, incluso este fenómeno abarca a euskaltel y sus variantes autónomas. En Italia han desmontado de la seguridad social la red de ambulatorios y hospitales gracias a una veintena de años privatizadores, ahora hay que ir a médicos particulares y la mafia ha montado hospitales para lavar dinero.

Hay que ligar el término "extensión del mercado" con "peor calidad del servicio" y mayores "beneficios privados".

216. paragrafoa. 31. orrialdea.

Proposamena

Hurrengo hau gehitu paragrafoan:

"Merkatuaren hedapen hutsa, *hau da irabazi pribatuak eta zerbitzuaren kalitate eskasagoa*, helburu duten pribatizazio politikei aurre egitea [...]"

Azalpena

Alemanian duela hamarkada bat telefonoa, ura, elektrizitatea pribatizatu zuten etahorren ondorioz mozkinak izugarri hazi dira eta zerbitzua ezin txartoago kudeatzen da. Inglaterran berdin pasatu zen eta orain trenbideak berriro aurrenazionalizatu dituzte, katenarien eta trenen egoera penagarria dela eta. Espainiar estatuan gauza bera gertatzen da gas, elektrizitate eta Telefonikarekin, fenomeno honek Euskaltel eta beste aldaera autonomoak hartzen ditu barne. Italian gizarte segurantzatik anbulategiak eta ospitalak kendu dituzte, hogei urteko pribatizazioen ondorioz, eta orain mediku pribatuengana joan beharra dago eta mafiak ospitalak antolatu ditu dirua zuritzeko.

"Merkatuaren hedapen" terminoa zerbiztu okeragoekin eta irabazi pribatu handiagoekin lotu behar da

Emendagilea: Juan José Altuna

123. emendakina

219. paragrafoa. Página 32.

Proposamena

Hurrego hau gehitu:

"Bultzatu nahi dugun burujabetza prozesuak jaso behar duen helburu garrantzitsuetako bat geure premia, ahalmen eta baliabideen araberako euskal sektore publiko berri *eta indartsua* eraikitzea izango da."

Azalpena

Burujabetza horretan geure premia eta beharrei aurre egin diezaiokeen sektore publikoa indartsua izan beharko da, bestela ez ziren beteko.

Párrafo 219. Página 32.

Propuesta

Añadir lo siguiente:

"Uno de los objetivos más importantes que debe contemplar el proceso soberanista que queremos impulsar será contruir un nuevo y *fuerte* sector público vasco conforme a nuestras necesidades, capacidades y medios."

Motivos

En esa soberanía el sector público que responda a nuestras necesidades debe ser un sector público fuerte, si no, no se cubrirían.

Emendagilea: Oier Pérez Balanzategi

124. emendakina

220. paragrafoa. 32. orrialdea.

Proposamena

"hiritargoaren interes orokorren gainetik" esapidearen ordez, *"hiritargoaren eskubide sozialen gainetik"* ipini.

Párrafo 220. Página 32.

Propuesta

Sustituir la expresión "por encima de los intereses generales de la ciudadanía" por *"por encima de los derechos sociales de la ciudadanía"*

Emendagilea: Nazio Komitea

125. emendakina

222. paragrafoa. 32. orrialdea.

Proposamena

Gehitu hurrengo hau paragrafoari:

"Zerbitzu publiko horien oinarriak unibertsaltasun, berdintasuna, kalitatea eta eraginkortasun sozialak dira, *horien kudeaketa egitean erakundeekin batera erabakiguneetan ere eragile soziala eta herritarren partaidetza ahalbideratuz.*"

Azalpena

Burujabetza prozesuaz eta euskal sektore publiko berriaren eraikuntzaz ari garela, hainbat sektoretan egin den bezala (adibidea: hezkuntza alorrean Nazio Eztabaida Gunetik bultzaturik, adostua izan den hezkuntza akordioa eta horren barruan euskal publikotasunari buruzko kontzeptu berria, publiko-herritarra eredua hain zuzen lortu zen), honetan ere euskal sektore publikoari buruzko definizio propioa egin beharko genuke. Bestela arriskua legoke balizko euskal sektore publiko "berrian" egungo sektorearen aka-tsak eta desbideraketak errepikatzeko.

Ildo beretik, "kalitatea" delakoa aipatzen denean, zertaz ari gara? teknika-metodo kapitalistan sakontzea (EFKM, EMOS2, ISO9000 eta abar) non herritarrak bezero/erabiltzaile besterik ez garen bilakatzen, noizbehinkako inkesta kontsultiboak erantzuteko aukerarekin, ala benetako demokrazia partizipatiboaren ereduari eutsita, erabakiguneetan ere parte hartzeko aukera izatea bermatuko lukeen eredu publiko-herritarra? Kalitateari buruzko parametroak zehaztu behar ditugu.

Biltzar Nagusia amaitu ondoren, ondo legoke Euskal Sektore Publiko Berriaren inguruko eredu propioaren definizio eta ezaugarriei buruzko hausnarketa eta eztabaida planteatzea, hots, zer nolako sektore publikoak behar ditugu Euskal Herrian? Hau proposamena besterik ez da.

Párrafo 222. Página 32.

Propuesta

Añadir lo siguiente al párrafo:

"La base de esos servicios públicos son la universalidad, la igualdad, la calidad, y la eficiencia social, *al gestionarlos debe promoverse la participación de los agentes sociales y la ciudadanía en los núcleos de decisión junto con las instituciones."*

Motivos

En cuanto nos referimos al proceso soberanista y a la construcción de un nuevo sector público, aquí también tendríamos que hacer una definición propia sobre el sector público vasco, tal y como se ha hecho en otros sectores (ejemplo: en educación, impulsado por el Foro de Debate Nacional, se determinó un acuerdo al respecto, dentro del cual se consiguió un nuevo concepto en torno a la enseñanza pública vasca, el modelo público-popular). Si no, existiría el peligro de repetir los mismos fallos y desviaciones del sector actual.

En el mismo sentido, cuando se menciona la "calidad", ¿de qué estamos hablando? de profundizar en las técnicas y métodos capitalistas (EFKM, EMOS2, ISO9000, etc.) en la que ciudadanas y ciudadanos nos convertimos en meros clientes/usuarios, con la oportunidad de contestar de vez en cuando una encuesta consultiva, o hablamos de un modelo público-popular que garantice la posibilidad de participar también en los núcleos de decisión, dentro de un modelo de verdadera democracia participativa? Tenemos que concretar los parámetros sobre calidad.

Después de finalizar el Congreso, estaría bien plantear una reflexión y discusión sobre la definición y las características de un modelo propio de Sector Público Vasco, es decir, sobre qué tipo de sectores públicos necesitamos en Euskal Herria. Esto es tan sólo una propuesta.

Emendagilea: Juan Karlos Aretxabaleta

126. emendakina

222. paragrafoa. 32. orrialdea.

Proposamena

Honako hau gehitu paragrafoari:

"[...] Zerbitzu publiko horien oinarriak unibertsaltasuna, berdintasuna, kalitatea eta eraginkortasun soziala dira; *halaber, sektore publikoak emakume eta gizonen aukera eta eskubide berdintasun erreala lortzeko politikak garatu behar ditu, egungo berdintasun formala eta errealaren arteko haustura gainditurik. Era berean, euskara berreskuratzeko eta normalizatzeko hizkuntza politika eraginkorra bideratu behar du.*[...]"

Azalpena

Sektore publikoak aitzindaritza izan behar du gai hauetan.

Párrafo 222. Página 32.

Propuesta

Añadir al párrafo lo siguiente:

"[...] La base de esos servicios públicos es la universalidad, la igualdad, la calidad y la eficiencia social; *asimismo, el sector público debe desarrollar políticas para conseguir una igualdad real de oportunidades y derechos de mujeres y hombres, superando la fractura actual entre igualdad formal y real. Igualmente, debe canalizar una política lingüística eficaz para la recuperación y normalización del euskara."*

Motivos

El sector público debe ser precursor en estos temas.

Emendagilea: Itziar Lopategi

127. emendakina

Párrafo 223. Página 32.

Propuesta

Sustituir "su visión jacobina" por "su visión burguesa y reaccionaria"

Motivos

No viene a cuento la visión jacobina con la defensa del sector público.

223. paragrafoa. 32. orrialdea.

Proposamena
"ikuspegi jakobino" esapidearen ordez, "ikuspegi burges eta atzerakoi" erabili.

Azalpena
Sektore publikoaren defentsaz ari garela, ez dator harira ikuspegi jakobinoa

Emendagilea: Juan José Altuna

128. emendakina

Párrafo 226. Página 33.

Propuesta
Suprimir la frase: "Uno de nuestros objetivos será la creación de un modelo propio de cogestión que impulse la participación de la clase trabajadora y el desarrollo de un modelo eficaz de relaciones laborales"

Motivos
No estoy a favor de cogestionar las actuales instituciones, instituciones que responden a intereses de las clases dominantes actuales. En el futuro, habrá que limitar la capacidad de las y los trabajadores de la función pública para obstaculizar las decisiones del poder en un modelo socialista. No podemos respetar la posición de las y los ginecólogos frente a los derechos de la mujer en materia de interrupción voluntaria del embarazo, ni de los técnicos de Osalan o INSL frente al derecho a la salud de las y los trabajadores...

226. paragrafoa. 32. orrialdea.

Proposamena
Hurrengo esaldi hau kendu: "Gure helburuetariko bat izango da langileek parte har dezatela bultzatuko duen kogestio eredu propioaren sorrera eta lan harremanen eredu eraginkorraren garapena"

Azalpena
Ez nago ados gaur egungo erakundeak kogestionatu behar ditugunik, egungo klase menperatzaileen interesei erantzuten diete eta. Etorkizunean, eredu sozialistan boterearen erabakiak oztopatu nahi dituzten funtzio publikoko langileen ahalmena mugatu beharko dugu. Ez dugu ginekologoen jarrera errespetatu abortu eskubidearen aurrean, ezta Osalan edo INSLren teknikarien jarrera, langileen osasun eskubidearen aurrean...

Emendagilea: Iñaki Moreno

129. emendakina

227. paragrafoa. Página 32.

Proposamena
Paragrafoa honelaxe osatu:
"Euskal Herriak behar duen sektore publikoa zehazteko asmotan, aipaturiko aspektuak eta beste batzuk sakondu behar dituen azterketa *eta lanketa* ideologikoari ekin behar diogu sindikatuan."

Párrafo 227. Página 33.

Propuesta

Completar el párrafo de la siguiente manera:

"Para concretar el sector público que necesita Euskal Herria, debemos abrir en el sindicato un análisis *y trabajo* ideológico que profundice, entre otros, en los aspectos que hemos nombrado."

Emendagilea: Nazio Komitea

130. emendakina

230. paragrafoa (berria). 33. orrialdea.

Proposamena

Paragrafo berri bat gehitu 229.aren ondoren:

"(230-berria) Enplegu duinaren aldarrikapenak berebiziko esangura du emakumezko langileen kolektiboarentzat. Izan ere, neoliberalismoaren eskutik ezartzen ari den prekarizazio orokorrak gizonezko langileen kolektiboarentzat zenbait kasutan eskuratuak ziren eskubideak urratu eta deuseztatzea badakar ere, emakumezkoen kasuan, ordea, inoiz eduki ez dituzten eskubideez ez jabetzea suposatzen du. Emakumeen lan merkaturatze prozesua azterturik ikus daiteke borrokaren bilakaera. Urte gutxitan baztertuta egotetik, presentzia gero eta handiagoa izatera pasatu da, nahiz eta oraindik gizonezkoengandik urrun egon. Hala ere, emakumezkoak ez dira lan merkatura aukera eta eskubide berdintasunean sartzen, gutxietsi eta diskriminaturik baizik. hori dela eta, ez da nahikoa emakumeentzat lanpostuak eskatzea, duinak izatea ezinbestekoa da."

Azalpena

Gure aldarrikapen nagusia da. Emakumeen zapalketa gainditzeak autonomia ekonomikoa eta bizi proiektua garatzeko aukera izatea eskatzen ditu eta horretarako enplegu duina izatea ezinbesteko baldintza da.

Párrafo 230 (nuevo). Página 33.

Propuesta

Añadir un nuevo párrafo tras en número 229:

"(230-nuevo) La reivindicación de un empleo digno tiene un significado especial para el colectivo de las mujeres trabajadoras. De hecho, la precarización general que se está imponiendo de manos del neoliberalismo, aunque traiga consigo en algunos casos la vulneración y destrucción de derechos que habían sido conseguidos, en el caso de las mujeres, sin embargo, supone el no conseguir derechos que jamás se habían tenido. Analizando el proceso de acceso al mercado laboral de las mujeres puede apreciarse cuál ha sido la evolución de la lucha. En pocos años se ha pasado de la exclusión a una presencia cada vez mayor, aunque todavía se esté lejos de la de los hombres. Sin embargo, el acceso al mundo laboral de las mujeres no se está produciendo en igualdad de oportunidades y derechos, sino en una forma subestimada y discriminada. Por ello, no es suficiente exigir puestos de trabajo pra las mujeres, sino que es imprescindible que los mismos sean dignos."

Motivos

Es nuestra principal reivindicación. Superar la opresión de las mujeres exige tener la oportunidad de desarrollar un proyecto de vida y una autonomía económica y para ello es una condición imprescindible el tener un empleo digno.

Emendagilea: Itziar Lopategi

131. emendakina

231. paragrafoa. 33. orrialdea.

Proposamena

"Aldarrikapen" hitzaren ardez, "eskakizun" edo "helburu" erabili:

"Kalitateko enpleguaren aldeko borrokak zuzenduko du, beraz, enplegu duinerako eskubidea defendatzeko gure estrategia. Instituzioei eta patronal publiko zein pribatuari zuzendutako *eskakizuna/helburua* izango da; borroka hau lan munduan lehentasunezkoa bilakatzeaz gain, bizi baldintzen okertzeari aurre egingo dion mobilizazio sozialerako erreferentzia izango da datozen urteetan."

Azalpena

Aldarrikapen hutsa esatea agian ez dio ematen izatez duen garrantzia, horregatik "eskakizun" edo "helburua" jartzea proposatzen da.

Párrafo 231. Página 33.

Propuesta

Utilizar, en vez del término "reivindicación", "*exigencia*" o "*objetivo*"

Motivos

Decir que es una mera reivindicación quizá no le dé la importancia que tiene, por eso se propone utilizar "exigencia" u "objetivo".

Emendagilea: Oier Pérez Balanzategi

132. emendakina

Párrafo 239 y 240 (nuevos). Página 34.

Propuesta

Crear dos nuevos párrafos tras el número 238:

"Inmigración

(239) Como ya se ha mencionado, la inmigración es uno de los factores que está suponiendo una transformación de la clase trabajadora vasca, por lo que a la hora de analizar los cambios sociales para impulsar una transformación política en nuestro país, es imprescindible hacer un análisis de la situación de la inmigración en Euskal Herria y la actuación que debe de tener el sindicato ante este nuevo fenómeno social, cultural, político y económico.

(240) No podemos olvidar que la legislación respecto a la inmigración es española, sin transferencias. Es el estado español el receptor. No tenemos instrumentos legales, más alla de la voluntad política de las instituciones de Euskal Herria y de los agentes sociales y sindicales, para incidir en esta nueva relación ampliada y solidaria del sujeto de clase, que debe así fortalecerse. Es, sin duda alguna, una razón más para la lucha por la constitución de un estado vasco socialista independiente."

239. eta 240. paragrafoak (berriak). 34. orrialdea.

Proposamena

Paragrafo berri bi sortu 238.aren atzean:

"Immigrazioa

(239) Jadanik aipatu denez, immigrazioa euskal langileria eraldatzen ari den faktoreetako bat da beraz, gure herrian aldaketa politikoa bultza-tzeko aldaketa sozialak aztertzeko orduan, ezinbestekoa da Euskal Herrian immigrazioaren egoera zein den eta gertaera sozial, kultural, politiko eta ekonomiko berri honen aurrean sindikatuaren jarrera zein izan behar den aztertzea.

(240) Ezin dugu ahaztu immigrazioaren inguruko legedia espainola dela, transferentziarik gabekoa. Estatu espainola da etorkinak hartzen dituena. Euskal Herriko erakundeen eta eragile sozial eta sindikalen borondateaz haratago, ez daukagu tresna legalik klase subjektua indartu behar duen harreman zabaldu eta solidario honetan eragiteko . Zalantzarik gabe, hauxe da beste arrazoi bat Euskal Estatu Sozialista independientea eraikitzeko.

Emendagilea: Aitziber Barandika

133. emendakina

239. paragrafoa. 34. orrialdea.

Proposamena

"Elebakar" terminoaren ordez, "euskaldun" erabili. Honelaxe geldituko litzateke:

"Ezinbestean eraiki nahi dugun Euskal Herria euskalduna da; herritar eleanitzez osatutako herri *euskalduna*.[...]"

Azalpena

Jatorrizko testuan "elebakarra" adjektiboa erabiltzeari ez dela egokiena deritzot. Guk adierazi nahi duguna zera da: egun pairatzen dugun diglosia egoera amaitu beharra dagoela, eta marko juridiko-politikoak eta erdera biek mantentzen dutela gure hizkuntza hizkuntz gutxitu (lesser-used language) bezala. Aldiz, ez dut uste herria elebakarra nahi dugunik, baizik eta euskara izatea Euskal Herriaren hizkuntza nagusia eta behingoz bukatzea euskaldunok pairatzen ari garen hizkuntz eskubideen urraketa sistematikoak. Hiritarrok eleanitzak bagara nekez irudika dezaket zelan herria elebakarra izan daitekeen, ezkertzaleon ikuspuntutik hiritarrok osatzen baitugu herria.

Párrafo 239. Página 34.

Propuesta

Susutituir el témino "monolingüe" por "euskaldun". Quedaría de la siguiente manera:

"La Euskal Herria que queremos construir necesariamente es euskaldun; un pueblo *euskaldun* formado por ciudadanas y ciudadanos plurilingües.[...]"

Motivos

Creo que no es adecuado el adjetivo "monolingüe" que se utiliza en la versión original. Lo que queremos decir es que hay que acabar con la situación de diglosía que sufrimos hoy en día y que los marcos jurídico-políticos y el francés y el castellano mantienen nuestra lengua como una lengua minorizada. Por el contrario, no creo que queramos un pueblo moolingüe, sino que sea el euskara la lengua principal de Euskal Herria y que acaben de una vez las vulneraciones sistemáticas de derechos lingüísticos que sufrimos las y los euskaldunes. Si los ciudadanos y ciudadanas somos plurulingües, difícilmente puedo entender cómo el pueblo puede ser monolingüe, ya que desde el punto de vista abertzale el pueblo lo formamos las y los ciudadanos.

Emendagilea: Patxi Bengoa Lapatza-Gortazar

134. emendakina

242., 243. eta 244. paragrafoak (berriak). 34. orrialdea.

Proposamena

Gehitu hurrengo testua:

3.3.6.Ingurumena. (berria)

(242-berria) Ama Lurra zaintzea ez da inondik ere dugun erantzukizunen artean ñimiñoenetarikoa. Ondorengo belaunaldiei Euskal Herri hondatua gera dakien nahi ez badugu, premiazkoa da etengabeko narriadura honekin amaitzea. Lurraren gehiegizko artifizializazioak, airearen kalitate txarrak, baliabide naturalen xahutzeak, bioaniztasunaren galerak, lurraldearen desorekak eta azpiegituren hazkunde amaigabeak ez garamatzate inora, hondamendira ez bada.

(243-berria) Ez da kasualitatea Euskal Herrian negutegi efektuko gasen emisioak izugarri gora egin izana azken bi hamarkadetan. Enpresari eta instituzioen axolagabekeriaren isla baino ez da. Oso eragin larriak ekar ditzakeen klima-aldaketa bultzatzen duten emisioak dira horiek, ezarri beharreko politikek ezinbestean baldintzatu behar dituztenak.

(244-berria) Kasu honetan bezala, beste askotan daude lotuta ingurumena babesteko gatazka sozialak eta lan mundukoak. LAB arlo bietan borrokatu beharraz jabetzen da. Izan ere, sistema kapitalistak bultzatutako hazkunde eta garapen eredu jasanezina irauli egin behar dugu helburu dugun nazio gorri eta more ezezik berdea ere izango dena lortzeko"

Azalpena

Gure sindikatuaren borroka ingurumena hobetzeko ezin dugu mugatu lantokira. Izan ere, aldaketa politiko eta sozialak arlo honetan ere gure inplikazioaren beharra du. Energia krisiari nola egin aurre, klima aldaketaren aurkako politikak nola bideratu, mugikortasunak dakartzan arazoak nola gutxitu... ugariak dira lantokian bertan geratuz gero oratu ezinak direnak.

Párrafos 242, 243 y 244 (nuevos). Página 34.

Propuesta

Añadir el siguiente texto:

"3.3.6. Medioambiente (nuevo)

(242-nuevo) Cuidar a nuestra madre tierra no es de ninguna manera una de las menores responsabilidades que tenemos. Si no queremos que a las próximas generaciones les quede una Euskal Herria destruida, es urgente terminar con este deterioro. La artificialización exagerada de la tierra, la mala calidad del aire, destruir los recursos naturales, la pérdida de la biodiversidad, el desequilibrio territorial y el crecimiento interminable de infraestructuras no nos llevan a ningún sitio, más que a la destrucción.

(243-nuevo) No es casualidad que la emisión de gases efecto invernadero haya crecido terriblemente en Euskal Herria en las últimas dos décadas. No es más que el reflejo de la desidia del empresariado y las instituciones. Son emisiones que provocan un cambio climático que puede acaerrar consecuencias muy graves, por lo que las políticas que se establezcan deben condicionarlas.

(244-nuevo) Como en este caso, en otros muchos los conflictos sociales y los del mundo laboral van de la mano. En LAB somos conscientes de la necesidad de luchar en ambos ámbitos. De hecho, tenemos que dar la vuelta a este modelo de crecimiento y desarrollo impulsado por el sistema capitalista, para conseguir ese objetivo de esa nación, no solo roja y morada, sino también verde que pretendemos."

Motivos

La lucha de nuestro sindicato para mejorar el medioambiente no podemos reducirla a la empresa. De hecho, el cambio político y social necesita de nuestra implicación también en este campo. Cómo hacer frente a la crisis energética, cómo encaminar políticas contra el cambio climático, cómo minorizar los problemas que acarrea la movilidad... son muchos los temas que si nos reducimos al ámbito de la empresa son imposibles de aprehender.

Emendagilea: Jon Artetxe Menika

135. emendakina

Párrafo 243 (nuevo). Página 34.

Propuesta

Introducir un nuevo párrafo tras el número 242:

"(243) En la era de la globalización neoliberal es necesario profundizar en el papel de las comunidades y la economía local, como estrategia para poder ubicarse en el contexto global y desarrollarse. Nuestras comarcas pueden ser nichos de desarrollo económico y social sostenible, que aprovechando las sinergias internas propias, podrían fomentar la cohesión de Euskal Herria."

Motivos

Dentro de esos criterios, hay que reforzar ideas de compactación como nación desde perspectivas reales y equilibradas comarcales.

243. paragrafoa (berria). 34. orrialdea.

Proposamena

"(243) Globalizazio neoliberalaren sasoian beharrezkoa da komunitateen eta tokian tokiko ekonomiaren paperean sakontzea, testuinguru globalean kokatzeko eta aurrera egin ahal izateko estrategia moduan. Gure eskualdeak garapen ekonomiko eta sozial iraunkorrerako habiak izan ahal dira, eta, barruko sinergia propioak aprobetxatuz gero, Euskal Herriko kohesioa bultzatu lezakete."

Azalpena

Irizpide horien barruan, nazio-konpaktaziorako ideiak indartu behar dira, eskualdeko ikuspuntu erreal eta orekatuaz.

Emendagilea: Aitziber Barandika

136. emendakina

Párrafo 243. Página 35.

Propuesta

Suprimir la frase "Así debemos desarrollarlas sin olvidar a las mujeres, que componen la mitad de la sociedad".

Motivos

Ya se hace referencia a las mujeres en la primera frase del apartado. Si lo mantenemos como está, estaremos cayendo nosotros mismos en el lenguaje patriarcal, que pretendemos eliminar.

243. paragrafoa. 34. orrialdea.

Proposamena
Hurrengo esaldi hau kendu: "Horrela bada, jendartearen erdia osatzen duten emakumeak ahaztu gabe jorratu behar ditugu"

Azalpena
Gaztelerazko azalpenak ez du balio euskarazko bertsiorako.

Emendagilea: Carlos Errasti

Aldaketa sozialak eragingo dituen ekintza sindikala

137. emendakina
Párrafo 245. Página 37.

Propuesta
Añadir al párrafo el siguiente texto:
"Tampoco podemos olvidar a personas discapacitadas (físicas y psíquicas), a presas y presos políticos y sociales, a las y los grandes enfermos, a pensionistas de pensiones miserables, por ejemplo las viudas, a ilegales sin papeles, a todas y todos los desiguales en derechos. El pueblo trabajador vasco y uno de sus instrumentos, LAB, estamos contra toda forma de opresión y marginación."

Motivos
Tal y como decía un europarlamentario en en frontón de Barakaldo hace unos años, "LAB es la punta de diamante del Movimiento Obrero Vasco"

245. paragrafoa. 35. orrialdea.

Proposamena
Paragrafoari hurrengo testu hau gehitu:
"Era berean, ezin ditugu ahaztu urritasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsonak, preso politiko eta sozialak, gaixotasun handiak dituztenak, miseriazko pentsioak jasotzen dituztenak, alargunak, esaterako, paperik gabeko ilegalak, eskubideak urratuak dituzten guztiak. Euskal herri langilea eta honen tresnetako bat, LAB, zapalkuntza eta bazterkeria mota guztien kontra gaude."

Azalpena
Duela urte batzuk Barakaldoko frontoian europarlamentari batek esan zuenez, "LAB euskal langile mugimenduaren diamantezko punta da"

Emendagilea: Juan José Altuna Azpiazu

138. emendakina
246. paragrafoa. 35. orrialdea.

Proposamena
"Sozio-laboral" terminoaren ordez, "sozial eta laboral" erabili:
"Gure ekintza sindikalaren ezaugariakondo definituak ditugu. gure interbentzioaren izaerak definitzen ditu, alegia: sozio-politikoa eta inposatzen diguten eredu ekonomiko, *sozial eta laboralaren* aurkako konfrontaziozkoa"

Azalpena
Oso aldaketa txikia da, baina ponentzian agertzen den bezala irakurtzean, eredu ekonomikoari sozial eta laboralari baino garrantzi handiagoa ematen zaiola ematen du. Eta azken finean, maila berean egon beharko lirateke, politikoa osatzen baitute hiruen artean.

Ponentziako 25.puntuan horrelaxe adierazten da.

Párrafo 127. Página 20.

Propuesta
Sustituir "sociolaboral" por "social y laboral":
"Las características de nuestra acción sindical están definidas por la naturaleza sociopolítica de nuestra intervención y de confrontación contra el modelo económico, *social y laboral* que se nos impone"

Azalpena
es un cambio muy pequeño, pero al leerlo como aparece en la ponencia, parece que se da más importancia al modelo económico que al social y laboral. Y, al fin y al cabo, tendrían que estar al mismo nivel, ya que entre los tres componen el modelo político.

Emendagilea: Ángel Miragaya

139. emendakina
255. paragrafoa. 36. orrialdea

Proposamena
"Ohiko lan merkatutik kanpo geratzeak [...]" esapidetik "ohiko" terminoa kendu.

Párrafo 255. Página 38.

Propuesta
Suprimir el término "ordinario" de la frase "Quedarse fuera del mercado laboral ordinario [...]"

Emendagilea: Nazio Komitea

140. emendakina
256. paragrafoa. 36. orrialdea.

Proposamena
Zehaztu patronal "publiko eta pribatua":
"Patronal *publiko eta pribatuaren* nagusitasuna mugatuz egun duen boterea borrokatzea da gure ekintza

sindikalaren helburua. Datozen urteetan aberastasunaren banaketaren estrategia orokorra gure jarduera sindikalaren erreferentzia izango da."

Azalpena
Beste artikulu batzuetan patronalaren ezberdintasun hau agertzen da, artikulu honetan ere ezberdintasun hori agertu behar da askotan patronala aipatzerakoan pribatura soilik jotzen dugulako eta patronal publikoa ahaztu egiten dugulako.

Párrafo 256. Página 38.

Propuesta
Concretar la patronal "pública y privada":
"El objetivo de nuestra acción sindical es disputar el poder a la patronal *pública y privada*, limitando la superioridad con la que cuenta actualmenta"

Motivos
En otros artículos se menciona esta diferencia entre patronales y en éste también debería aparecer, ya que muchas veces cuando hablamos de patronal olvidamos la pública y nos referimos sólo a la privada."

Emendagilea: Oier Pérez Balanzategi

141. emendakina

Párrafo 257. Página 38.

Propuesta
Añadir "plusvalía": "La riqueza-*plusvalía* que se crea gracias a nuestro trabajo [...]"

257. paragrafoa. 11. orrialdea.

Proposamena
paragrafoari "gainbalio" terminoa gehitu: "Langileen lanari esker sortutako aberastasun-*gainbalioa* [...]"

Emendagilea: Juan josé Altuna Azpiazu

142. emendakina

265 paragrafoa. 37. orrialdea.

Proposamena
"Beraz, soldatetako eros ahalmena KPIaren gainetik hobetzea aldarrikatu behar dugu" esaldiaren ordez, hauxe ipini:
"Beraz, soldaten igoerak etekinen igoeraren araberakoa izan beharko du. Zerbitzu publikoetan erreferentzia hazkunde ekonomikoa izango da. Soldaten igoerak zehazteko KPI azpiko erreferentzia izango da"

Azalpena
Ondasun banaketan urratsak egin ahal izateko, etekinen inguruko borroka planteatu beharko dugu. Etekinak langileok sortzen ditugu eta langileok eskuratu beharko ditugu.

Párrafo 265. página 39.

Propuesta

Sustituir la frase: "Por lo tanto, debemos reivindicar que el poder adquisitivo de los salarios suba por encima del IPC" por el siguiente texto:

"Por lo tanto, la subida salarial deberá ser acorde con el incremento de beneficios. En los servicios públicos la referencia será el crecimiento económico. Para concretar la subida salarial, el IPC será la referencia mínima"

Motivos

Para avanzar en la redistribución de la riqueza, deberemos plantear una lucha en torno a los beneficios. Las y los trabajadores somos quienes producimos esas ganancias y a quien deben beneficiar.

Emendagilea: Isidro Esnaola Herrero

143. emendakina

265. paragrafoa. 37. orrialdea.

Proposamena

Hurrengo hau gehitu paragrafoari:

"Igoeraz gain, aparteko ordurik gabeko soldata duina aldarrikatu behar dugu."

Azalpena

Igoera aldarrikatze hutsarekin ez dugu bermatzen soldatak duinak direnik. langile askok aparteko orduekin lortzen dute soldata "duin" xamarra.

Párrafo 265. Página 39.

Propuesta

Añadir lo siguiente al final del párrafo:

"Además de una subida salarial, debemos reivindicar un salario digno al margen de horas extras"

Motivos

Con solo una reivindicación salarial no garantizamos que los salarios sean dignos. Muchas y muchos trabajadores consiguen mediante horas extras un salario más o menos "digno".

Emendagileak: Pello Iriarte, juanjo Munarriz, Oihana Lopetegi

144. emendakina

268. paragrafoa (berria). 37. orrialdea.

Proposamena

Paragrafo berri bat gehitu 267.aren ondoren:

(340-berria) Lan munduko ekintza sindikala, egungo eredu soziala auzitan jarri eta beste eredu bat aldarrikatuz egin beharreko borrokarekin uztartu behar dugu. Besteak beste, ondorengo esparruetan eraginez: AHTren aurkako borroka, etxebizitza eskubidearen aldeko borroka, zerga politika justuagoak aldarrikatu, zerbitzu publiko egokiak exijitu,zaindua eta zaintzaile ez izateko eskubidea aldarrikatu, pobreziaren mugatik behera inor ez bizitzeko oinarrizko prestazio sozialak bermatzeko, hizkuntza normalkuntzaren alde eta abar.

(341-berria) Lan munduan eta jendartean gauzatu beharreko ekintza sindikalak elkar elikatu eta osagarritu behar dute.Lan munduko prekarietatearen aurkako borrokan mobilizazio sozialaren indarra baliatu behar dugu.

(342-berria) Honetarako herri mugimendu ezberdinekin (emakumeak, gazteak, mugimendu ekologista, euskalgintza, eskubide sozialen aldeko eragile ezberdinekin...) elkarlana beharrezkoa izango da."

Apartado 4.5. (nuevo). Página 47.

Propuesta

Añadir un nuevo apartado tras el número 4.4.:

"4.5. Acción sindical en la sociedad (nuevo)

(339-nuevo) Nuestro principal ámbito de trabajo de acción sindical son las empresas. Dicho esto, en la medida en que somos un sindicato de sociopolítico y si queremos ser un verdadero sindicato de contrapoder, junto con la acción sindical que llevamos a cabo en el mundo laboral para mejorar las condiciones de trabajo, debemos ser un agente activo por el cambio social.

(340-nuevo) Debemos ensamblar la acción sindical en el mundo laboral con la lucha que debemos realizar para poner en tela de juicio el actual modelo social y reivindicar otro distinto. Entre otros, actuando en los siguientes ámbitos: contra el TAV, a favor del derecho a una vivienda, por una política fiscal más justa, servicios públicos adecuados, el derecho a cuidados y a no ser cuidadoras, para que se garanticen prestaciones sociales básicas y que nadie viva por debajo del umbral de la pobreza, a favor de la normalización lingüística, etc.

(341-nuevo) La acción sindical a realizar en el mundo laboral y la sociedad deben retroalimentarse y complementarse. En la lucha contra la precariedad laboral debemos valernos de la movilización social.

(342-nuevo) Para esto, será necesario el trabajo junto con distintos movimientos populares (mujeres, juventud, movimiento ecologista, euskalgintza, diversos agentes a favor de los derechos sociales...)"

Emendagilea: Nazio Komitea

177. emendakina
358 paragrafoa. 47. orrialdea.

Proposamena
Paragrafoari ondoko hau gehitu:
"[...] Lana antolatzeko denbora hartzea eraginkortasunaren mesedetan egingo dugun antolakuntza inbertsioa *dela, egunerokotasunak ezin digu perspektiba hau galarazi.*"

Azalpena
Lanaren antolakuntzaren inguruan luze hitz egiten da, baina inoiz ez dira hankak lurrean ipintzen antolakuntza kontzeptua norberak ulertzen duenaren arabera eta prestatuta dagoenaren arabera aplikatzen baitu antolaketa marko ezberdin guztietan.

Párrafo 358. Página 47.

Propuesta
Añadir lo siguiente al párrafo:
"[...] Dedicar el tiempo necesario a la organización del trabajo es una inversión a favor de la eficacia, *por lo que el día adía no puede hacernos perder esta perspectiva.*"

Motivos
Se habla largo y tendido sobre la organización del trabajo, pero nunca se ponen los pies sobre la tierra, ya que el cada cual lo aplica según entiende el concepto de organización y está preparado o preparada en todos los diferentes marcos.

Emendagilea: Aitziber Barandika

178. emendakina
362. eta 363. paragrafoak. 47. orrialdea.

Proposamena
Paragrafoei hurrengo esaldi hauek gehitu:
"362. Hurbiltasuna da borroka ideologikoa egiteko daukagun aktiborik garrantzitsuenetako bat. Jendearengandik, langileengandik hurbil gaude, beren ondoan lantokian edo herrian, zuzen zuzenean egin dezakegu eta egin behar dugu lan ideologikoa. Borroka ideologikoa egitea guztion erantzukizuna da eta guztion esku dago, LABeko kideok iritzi sortzaileak eta emaileak izan behar gara lankideen artean eta jendartean. *Lan ideologiko hau egiteko lantegietako batzarrak oso gune garrantzitsuak direla aipatu beharra dago.*

363. Sistemaren adierazpenak auzitan jarri eta langilerian eztabaidak egitea bultzatu behar dugu. Bertsio ofizialetan sinesten ez duen herri batean bizi garela presente edukita, horixe da indartu eta bultzatu behar dugun jarrera behin eta berriro jasotzen ditugun azterketa eta diskurtso politiko, ekonomiko zein sozialen aurrean. *Langilerian eztabaida hauek bultzatzeko lantegietako batzarrei behar besteko garrantzia eman behar diegu, batzar bakoitza ondo prestatuz.*"

Azalpena
Batzarrak ez dira aipatzen. Garrantzitsua da batzarrak aipatzea, oso gune garrantzitsua da beste sindikatuekin mantentzen dugun dialektikan gure mezua langileei helarazteko eta posizioak irabazteko.

Párrafos 362 y 363. Páginas 51 y 52.

Propuesta
Añadir las siguientes frases a ambos párrafos:

"362. [...] Hay que mencionar que las asambleas en las empresas son unos puntos muy importantes para llevar a cabo este trabajo ideológico"

"363 [...] Para impulsar estos debates entre las trabajadoras y trabajadores debemos dar la importancia que merecen a las asambleas de empresa y preparar cada una de una forma adecuada."

Motivos
No se mencionan las asambleas. Es importante, ya que es un punto muy importante para hacer llegas a las trabajadoras y trabajadores nuestro mensaje y ganar posiciones dentro de la dialéctica que mantenemos con el resto de sindicatos.

Emendagileak: Pello Iriarte, Juanjo Munarriz eta Oihana Lopetegi

179. emendakina
372. paragrafoa. 48. orrialdea.

Proposamena
"Garrantzitsuena" terminoaren ordez, "garrantzitsua" erabili.

Azalpena
Agian, ez da tresnarik garrantzitsuena

Párrafo 372. Página 53.

Propuesta
Sustituir el término "más importante" por "importante".

Motivos
Quizá no sea la herramienta más importante

Emendagilea: Aitziber Barandika

180. emendakina
379 (berria). paragrafoa. 49. orrialdea.

Proposamena
Paragrafo berri bat sortu 378.aren ostean:
"(379-berria) Erantzuleengan (patronalarengan) borroka zuzena erabiltzea ere guztiz interesgarria da. Ugazaben bizitza pertsonala erasotzea ezinbesteko jausia da ugazaba egunero sartzen baita gurean (soldata igoerak murriztu, lan ordu gehiago eskatu, prekaritatera kondenatu langileak,...), langileon bizi kalitatea murriztuaz. Patronala, lasai asko egon ahal da borroka eremua enpresara soilik mugatuko bagenu. Urduritasuna ordea, borrokak bere eguneroko bizitzan eragiteak sortu ahal dio langile eta borrokaren mesedetan."

Azalpena
Borroka laburrak bezain eraginkorrak helburutzat baditugu, jausi kualitatiboak eman behar ditugu.

Párrafo 379 (nuevo). Página 54.

Propuesta
Añadir un nuevo párrafo tras el número 378:

"(379-nuevo) utilizar la lucha directa ante las y los responsables (la patronal) también es interesante. Combatir en el plano personal de la patronal es un paso imprescindible ya que ellas y ellos también atacan nuestra vida día adía (reducen las subidas salariales, piden mñas horas, nos condenan a la precariedad...) restringiendo nuestra calidad de vida. La patronal estaría muy tranquila si limitáramos nuestro ámbito de lucha a la empresa. Sin embargo, la lucha en su día a día puede causarles un nerviosismo favorable a la lucha y a las y los trabajadores."

Motivos
Si nuestro objetivo son luchas cortas y efectivas, debemos dar pasos cualitativos.

Emendagilea: Aitziber Barandika

181. emendakina
383. paragrafoa. 50. orrialdea.

Proposamena
Paragrafoa honelaxe moldatu:
"*Oinarri sendoko* lankidetza sindikala bultzatzea gure erreferentzia da eta izango da aurrerantzean. bat egitearen aldeko diskurtosetatik haratago, sindikatuon arteko indarrak batzeko bideak arakatzearen aldekoak gara, eta beharrezkoak diren iniziatibak hartuko ditugu elkarlana bultzatzeko *Euskal Estatu Sozialista eta Independientearen bidean*."

Azalpena
Alde batetik, aurreko paragrafoan, 382.enean, argiago esaten da batasunak oinarri sendoak izan beharko dituela, eta azken honek 383.nak, ez zuen hori indartzen, bai ordea proposatzen den aldaketak. Eta bestetik, "2005ean Nazio Biltzarrak..." hortik aurrera ezabatzea eta aldaketa sartzeak, indar gehiago ematen dio amaierari.

Párrafo 383. Página 54.

Propuesta
Modificar el párrafo de la siguiente manera:
"Impulsar esa colaboración sindical *de bases sólidas* ha sido y seguirá siendo nuestra referencia. Más allá de discursos a favor de la unidad de acción, estamos a favor de explorar vías de acumulación de fuerzas intersindicales, activando las iniciativas necesarias, en aras a impulsar esa colaboración *en pos del Estado Socialista e Independiente Vasco.*"

Motivos
Por una parte, en el párrafo anterior, el 382, se deja más claro que dicha unidad necesita de bases sólidas, y este último párrafo no reforzaba esta idea, y sí por el contrario el cambio que se propone. Por otra parte, suprimir del texto la última frase e incluir este cambio refuerza el final."

Emendagilea: Aitziber Barandika

182. emendakina
5.6. atala (berria). 50. orrialdea.

Proposamena
Atal berri bat sortu 5.5. atalaren ondoren:

"5.6. Elkarlana herri mugimenduekin (berria)

(384-berria) Sindikatuaren lan eta borroka esparru nagusia lantegia da. Prekaritatearen aro honetan, lante-

gietan garaipenak lortu ahal izateko kanpoko presioa ezinbestekoa bilakatzen da. Lantegiko borrokaren ikuspuntutik ere, kalea eta herria langileen borroketan inplikatzea oso garrantzitsua da.

(385-berria) Era beran, langileriari eragiten dizkion bestelako borrokak garatzen dira herrietan: etxebizitza eskubidearen alde, ingurune osasuntsuaren alde, pobreziaren aurka eta abar. Borroka hauetan ere sindikatuak bere ekarpena egin beharko du, gure proiektu politikoaren eraikuntzaren ikuspuntutik eta langileriaren interesen defentsaren ikuspuntutik.

(386-berria) Bi norabide hauetan, ezinbestekoa da elkarlana burutzea herri mugimendu eta gazte mugimenduarekin, batez ere, herrietan eta borroka zehatzen inguruan."

Azalpena
Prekarizazioaz ari gara, langileriaren zatiketaz ari gara ponentzia osoan zehar. Gertakari hauek ekiditeko, langileria berrosatzeko eta gure izaera sozio-politikoa indartzeko ezinbestekoa da gure ekintza sindikala izaera sozio-politikoa izatea eta ez mugatzea lantokietara bakarrik.

Zentzu horretan, beste eragile sozialekin burutu beharreko elkarlana definitu beharko genuke. Definizio horretarako proposamen bat.

Apartado 5.6. (nuevo). Página 54.

Propuesta
Añadir un nuevo apartado tras el número 5.5.:

"5.6. Colaboración con los movimientos populares. (nuevo)

(384-nuevo) El ámbito de trabajo y lucha principal del sindicato es el centro de trabajo. En esto tiempos de precariedad, para conseguir logros en los centros de trabajo se convierte en algo imprescindible la presión exterior. También desde el punto de vista de la lucha en la empresa es muy importante que se implique la calle y el pueblo en las luchas de las trabajadoras y trabajadores.

(385-nuevo) igualmente, en los pueblos se desarrollar luchas que afectan a la clase trabajadora: a favor del derecho a una vivienda, por un medioambiente saludable, contra la pobreza, etc. en estas luchas también el sindicato tendrá que hacer su paortación desde el punto de vista de nuestro proyecto político y de la defensa de los intereses de la clase trabajadora.

(386-nuevo) En estas dos direcciones es imprescindible la colaboración con los movimientos populares y el movimiento juvenil, so bre todo en los pueblos y en torno a luchas concretas."

Motivos
A lo largo de toda la ponencia hablamos de precariedad, de la división de la clase trabajadora. Para evitar esto, para reestructurar la clase trabajadora y para reforzar nuestro carácter sociopolítico, es imprescindible que nuestra acción sindical tenga un carácter sociopolítico y no limitarnos tan sólo a las empresas.

En este sentido, deberíamos definir la colaboración con los demás agentes sociales. Una propuesta para esa definición.

Emendagilea: Isidro Esnaola Herrero

Emendakinak
Antolakuntza

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

Emendakinak
Antolakuntza

E

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

Sarrera

1. emendakina

Párrafo 1. Página 5.

Propuesta

Cambiar en la segunda línea, "seguimos dando vía a un proceso de fuerte renovación" por "debemos dar vía a un ..."

Por lo tanto la frase quedaría así:

"(1) [...] además de los debates propios de cualquier Congreso, *seguimos* dando vía a un proceso de fuerte renovación.

Motivos

De esta manera, mantenemos el criterio de renovación constante, y no sólo generacional, que parece que "algo acaba y comienza otra cosa".

La renovación ha de ser una constante, en todo el quehacer revolucionario, sin anquilosamientos perpetuados en el tiempo. Una renovación generacional, tiene implicaciones "rupturistas" con todo lo concerniente a la generación anterior. En una praxis revolucionaria, ello no ha de tener lugar.

1. paragrafoa. 5. orrialdea.

Proposamena

Bigarren lerroan "honetan berritze prozesuari bide eman behar diogulako" esaldian aldatu eta jarri "[...] bide ematen jarraitzen dugu".

Beraz horrela geratuko da paragrafoa:

"(1) [...] edozein Biltzar Nagusitan ohikoak diren eztabaidetaz gain, honetan berritze prozesuari *bide ematen jarraitzen dugu*"

Azalpena

Esaldi hori gehituz gero, etengabeko berritze prozesua ez dagokiola bakarrik belaunaldi aldaketari esan nahi dugu; bestela zerbait bukatu eta beste zerbait (berria) hasiko dela dirudi.

Eginkizun iraultzailean eraberritzeak etengabekoa izan behar du; ezin baita denboran geldirik geratu. Belaunaldi aldaketak aurrekoarekiko "apurketa" zentzua izaten duen arren; praxi iraultzailean ezin da hori gertatu.

Emendagilea: Jose Felix Aguilera Iturbe-Ormaetxe

2. emendakina

Párrafo 2. Página 5.

Propuesta

Eliminar las dos últimas líneas:

"Dicho de otra manera, empezamos a preparar el cambio generacional que previmos y anunciamos en el 6º Congreso"

Motivos

De esta manera, mantenemos el criterio de renovación constante y no sólo generacional, que parece que

"algo acaba y comienza otra cosa".

2. paragrafoa. 5. orrialdea.

Proposamena
Paragrafoari azken bi lerroak kendu:
"Beste era batera esanda, 6. Biltzar Nagusian aurreikusi eta iragarri genuen belaunaldi aldaketa prestatzen hasi ginen."

Azalpena
Esaldi hori kenduta, etengabeko eraberritze prozesua ez dagokiola bakarrik belaunaldi aldaketari esan nahi dugu; bestela zerbait bukatu eta beste zerbait (berria) hasiko dela dirudi.

Emendagilea: Jose Felix Aguilera Iturbe-Ormaetxe

3. emendakina
Párrafo 4-5-6-7. Página 5

Propuesta
Eliminar totalmente los párrafos indicados.

Motivos
Con el texto que aparece, da la impresión de que este Congreso es de borrón y cuenta nueva. La renovación ha de ser constante, y no coyuntural y/o no sólo cada x años. La preparación de la militancia ha de ser constante y no sólo en la preparación de los nuevos cuadros dirigentes. Así mismo, da la impresión de que la tarea realizada hasta hoy en día, sólo ha servido para llegar al día de hoy, no siendo base para el futuro. Me refiro al espíritu que se manifiesta cuando se indica "nos tendremos que amoldar a personas, situaciones y formas de funcionar nuevas o renovadas" ¿Qué significa?, ¿Borrón y cuenta nueva?, ¿Sindicato nuevo?. No creo que ese sea el objetivo, pero los conceptos de las palabras empleadas llevan a algo parecido.

4-5-6-7. paragrafoak. 5. orrialdea

Proposamena
Aipatutako paragrafo guztiak ezabatu.

Azalpena
Lerro horiek irakurrita, badirudi Biltzar honetan aro bat amaitu eta berri bat hasiko dugula. Berritzeak etengabea izan behar du eta ez egoeraren araberakoa edo ez dakit zenbat urterik behin egiten dena. Militanteen prestakuntzak ere iraunkorra izan behar du; baina ez bakarrik zuzendaritza ardurak dituzten militanteen artean. Halaber, badirudi gaur arte egindako lanak honaino heltzeko baino ez duela balio izan eta ez dela etorkizunerako oinarri izango. Hain zuzen ere, "egoera eta funtzionamendu berri edo berrituetara egokitu beharko gara" diogunean zer esan nahi dugu? Hutsetik hasiko garela? Sindikatu berri bat? Nire ustez, helburua hori ez den arren, erabilitako hitzek aipatu dudana edo antzeko zerbait behintzat adierazi nahi dute.

Emendagilea: Jose Felix Aguilera Iturbe-Ormaetxe

Balantzea eginez, etorkizuneko oinarriak finkatu

4. emendakina

Párrafo 25. Página 9.

Propuesta

Cambiar "militancia y compromiso" por "solidaridad y justicia", por lo que la frase quedaría así:
"(25) En estos tiempos, parece que hablar de *solidaridad y justicia* sea hablar de un modelo que está anticuado."

Motivos

Planteo la modificación de los términos, por entender que "solidaridad y justicia" son más acertados a la hora de definir los valores sociales, y "militancia y compromiso" la consecuencia de los primeros, aplicados a la organización.

25. paragrafoa. 7. orrialdea.

Proposamena

"Militantziaz eta konpromisoaz" dioen tokian *"elkartasunaz eta justiziaz"* agertzea.

Azalpena

Balio sozialak definitzeko orduan "elkartasuna eta justizia" egokiagoak iruditzen zaizkidalako proposatu dut aldaketa. Izan ere, "militantzia eta konpromisoa" antolakuntzari dagozkio; baina aipatu horien ondorio legez.

Emendagilea: Batirtze Alkorta Lasa

5. emendakina

Párrafo 28. Página 9.

Propuesta

Sustituir el párrafo entero por:
"Diversos elementos obstaculizan el organizarse: el modelo de sociedad y la ideología dominante. Debiendo abordarlos y dar una salida en línea con nuestra propuestalidea de sociedad, tras realizar el previo análisis."

Motivos

Los elementos que obstaculizan el organizarse, no son de índole de conciliación familiar que ello debe "organizarse" en el seno de la misma familia, sino que es la configuración de la sociedad, lo que quiere el sistema actualmente imperante. Quiere para los componentes de la misma, el fomento del individualismo, machismo familiar, la ausencia de solidaridad,... Precisamente, y trás constatado, es frente a lo que debemos o debierámos trabajar.

28 paragrafoa. 7. orrialdea

Proposamena

Paragrafoa ordezkatu:
"Hainbat dira antolatzea oztopatzen duten elementuak: jendarte eredua eta ideologia nagusia. Biak hala biak,

jorratu eta guk jendarte berri baterako daukagun ideia edo proposamena aintzat hartuta irtenbide bat eman beharko diogu, aurrez hausnarketa sakon bat egin eta gero."

Azalpena

Antolatzeko oztopoetako bat ez da familia kontziliazioa; hori familia barruan konpondu beharreko gaia da-eta. Oztopoen artean, jendartearen konfigurazioa dago. Hau da, zer nahi duen egun gailendu den sistemak? Sistemak indibidialismoa, familiako matxismoa, elkartasunik eza, ... sustatu nahi ditu. Beraz, hori horrela dela ziurtatu ondoren, horri aurre egiteko egin behar dugu edo egin beharko genuke lan.

Emendagilea: Jose Felix Aguilera Iturbe-Ormaetxe

6. emendakina

Párrafo 29. Página 9.

Propuesta

Suprimir las dos últimas líneas. Debiendo concluir el párrafo con "participación de las mujeres que ha dado sus frutos."

Motivos

El modelo organizativo ha de servir para dar respuesta a una situación y colocarnos en un estado mejor que el anterior. El/los problemas para que participe, bien la mujer, bien la juventud,... o cualquier componente de la clase trabajadora, globalmente son los que debemos tratar y dar respuesta; ¿por qué se da una participación menor en el sindicato por grandes sectores de afiliación? Ése es el meollo.

29. paragrafoa. 7. orrialdea

Proposamena

Paragrafoaren azken bi lerroak ezabatu. Beraz, honela bukatuko da:
"[...] Emakumeen kasuan, estrategia oso bat diseinatu dugu emakumeen parte hartzea handitzeko; honek emaitzak izan ditu."

Azalpena

Antolakuntza ereduak orain arte baino hobeto antolatzeko balio behar digu. Emakumeen, gazteen edo edozein partaidek, oro har, parte hartzeko dituen oztopoak dira landu eta gainditu behar ditugunak. Afiliaziorik gehien daukaten sektoreetan zergatik dago parte hartze txikiagoa? Hor dago koxka.

Emendagilea: Jose Felix Aguilera Iturbe-Ormaetxe

7. emendakina

Párrafo 31. Página 9.

Propuesta

En la tercera línea, invertir el órden cuando dice: "[...] *Sus cuadros y militantes*, son su capital más preciado, que hay que preservar y cuidar." Por lo tanto, la frase quedaría así:
"[...] *Sus afiliados/as, sus militantes y sus cuadros, ...*"

Motivos

Lo que primero va, es lo importante y entiendo que antes de los cuadros, son las personas militantes e incluso antes que éstas lo es la afiliación.

31. paragrafoa. 7. orrialdea

Proposamena
Hirugarren lerroan, hitzen ordena aldatu, honako esaldi honetan: "[...] Erakunde baten kapitalik preziatuena *bere koadroak dira, bere militanteak*". Beraz, esaldia honela geratuko litzateke:
"[...] *bere afiliatu, militante eta koadroak*".

Azalpena
Garrantzitsuena hasieran doana izaten ohi da eta nire ustez, koadroak baino garrantzitsuagoak dira militanteak eta are gehiago afiliazioa bera.

Emendagilea: Jose Felix Aguilera Iturbe-Ormaetxe

8. emendakina
Párrafo 31. Página 9.

Propuesta
Sustituir "sus cuadros y sus militantes" por "*sus militantes*".

Motivos
En el contexto de organización de personas y su "capital preciado", el término "militantes" engloba a todas esas personas.

31. paragrafoa. 7. orrialdea

Proposamena
"Bere koadroak" eta "bere militanteak" jarri beharrean, "*bere militanteak*" bakarrik agertu dadila.

Azalpena
Pertsonen antolakuntzaz eta "kapitalik preziatuenaz" ari garenean, militante terminoak guztiak biltzen ditu.

Emendagilea: Batirtze Alkorta Lasa

9. emendakina
Párrafo 31. Página 9.

Propuesta
Sustituir "entre organización y ls personas militantes" por *"entre sus estructuras"*

Motivos
De la redacción se puede enteder que las personas militantes no están organizadas.

31. Paragrafoa. 7. Orrialdea

Proposamena
"erakunde eta pertsona-militanteen artean." esapidearen ordez, *"bere egituren artean"* ipini.

Azalpena
Testua dagoen moduan utzita, pertsona militanteak egituraturatik kanpo daudela uler daiteke.

Emendagilea: Batirtze Alkorta Lasa

10. emendakina

34. paragrafoa. 8. orrialdea.

Proposamena

34. paragrafoan "[...] Datozen lau urteetan sindikatuaren belaunaldi berri baten kokapena egin behar dugu. Egun lekukoa hartu duen belaunaldia izango baita datozen urteetan sindikatuaren norabidea eta lema eramango duena." testu zatia honako honengatik ordezkatu:

"[...] Zuzendaritza berria sendotzeko lan egin behar dugu. Izan ere, zuzendaritza berriak LABen proiektu sindikal tinkoa garatzeko gai zian behar du. Era berean, sindikatuan eta batez ere interbentzio egituretan belaunaldi berriak integratzeko prozesuak bere bidea jarraitu behar du. Horixe, baita langileen inplikazioan oinarrituta eraberritzeko bermea.

Azalpena

Biltzar Nagusi honetan egiten dugun urratsa zuzendaritza mailakoa bada ere, belaunaldi berrien integrazioa maila guztietan izan behar da; ez da sindikatuak duen behar propio hutsa (zuzendaritza berritzea), sindikalismoak oraingo eta etorkizuneko erronkeri aurre egiteko duen behar iraunkorra da.

Egingo dugun urratsa duela zortzi urte hasitako prozesuaren emaitza da, baina ez da prozesuaren amaiera. Belaunaldi berrien integrazioak iraunkorra izan behar du eta orain egingo dugun urratsa barne prozesuaren inflexio puntu bat izanda, helburu berriak jarri behar dizkiogu geure buruari datozen urteetara begira. Helburu horietako bat ordezkaritza sindikalean ditugun gazte asko sindikatuko koadro militanteak bilakatzea da, gure interbentzio egiturak berritze eta indartze aldera.

Párrafo 34. Página 10

Propuesta

Sustituir la parte del párrafo que dice "En los próximos años debemos consolidar la nueva generación que toma el relevo, pues será la que lleve la dirección y el timón del sindicato en los próximos años." por el siguiente texto:

"[...] Tenemos que trabajar para afianzar una nueva dirección capaz de abordar el desarrollo de un proyecto sindical consolidando como es LAB. Y seguiremos avanzando en el proceso de integración de nuevas generaciones en el sindicato, en las estructuras de intervención del sindicato principalmente, porque ésa es la garantía de renovarse desde la implicación real de los y las trabajadoras."

Motivos

Aunque el cambio en este Congreso es a nivel de dirección, la integración de nuevas generaciones se tiene que dar en todos los niveles.; no es sólo una necesidad que tiene el sindicato (renovar la dirección), es una necesidad permanente que tiene el sindicato para hacer frente a los retos actuales y futuros que tiene el sindicalismo.

El proceso de renovación comenzó hace ocho años y el cambio no supone un punto y final en dicho proceso. La integración de nuevas generaciones tiene que ser continua y el paso que ahora vamos a dar no es más que un punto de inflexión en este proceso interno. De cara al futuro tendremos que establecer nuevos objetivos y uno de ellos tiene que ser conseguir que la gente joven que hoy en día es representate sindical pase a ser cuadro militante dentro del sindicato para poder renovar nuestras estructuras de intervención y así reforzalas.

Emendagilea: Nazio Komitea

11. emendakina

37. Paragrafoa. 8. Orrialdea.

Proposamena

"[...] Sektoreetatik, batez ere, Eskualdeko Idazkaritzetatik oinarriak finkatu behar ditugu nahi dugun sindikalismo eta interbentzioa burutu ahal izateko." dionean gehitu *"eta herrietatik"*.

Azalpena

Sektoreak eta Eskualdeko Idazkaritzak aipatzen dira interbentzio gune gisa, baina Herri Biltzarrak ere interbentzio guneak dira.

Párrafo 37. Página 10.

Propuesta

Añadir "y desde los pueblos" cuando dice:

"[...] Debemos fijar las bases desde los sectores, *desde los pueblos* y, sobre todo, desde los secretariados comarcales para poder desarrollar el sindicalismo y la intervención que propugnamos."

Motivos

Sólo aparecen los sectores y los secretariados comarcales como núcleos de intervención, pero también la Asamblea Local es una de ellas.

Emendagilea: Aitziber Barandika

12. emendakina

42. paragrafoa (berria). 8. orrialdea.

Proposamena

41. paragrafoa bukatzen denean honako berri hau gehitu:

"(42-berria) Alde batetik sektoreak, berari zegokienari erantzuten saiatu da ikuspegi murritzegiarekin. Bestalde, herri biltzarrak (dauden lekuetan), ez dute argi izan zertan eta nola eragin ikuspegi sozioekonomiko eta soziopolitikoa oinarritzat hartuaz. Eta azkenik, eskualde idazkaritzak, koordinazio guneak izan dira eskualdeko borrokarako erronken antolakuntza guneak izan beharrean."

Azalpena

Balantzean "hutsune guztiak" kokatzen dituen paragrafo bakar bat sartzea komenigarria litzateke irakurketa osoa hobeto ulertu ahal izateko.

Párrafo 41. Página 10.

Propuesta

Añadir un nuevo párrafo tras el número 41:

"(42-nuevo) Los sectores, por su parte han intentado responder a lo que les correspondía con una perspectiva muy reducida. Por otro parte, las Asambleas Locales (donde las hay) no han tenido claro en qué y cómo incidir desde una perspectiva socioeconómica o sociopolítica. Y por último, los secretariados comarcales han funcionado como núcleos de coordinación, en vez de organizar los retos de las luchas a nivel comarcal."

Motivos

Sería conveniente que apareciera un único párrafo en el que se recojan todos los defectos para poder hacer una lectura integral.

Emendagilea: Aitziber Barandika

13. emendakina

Párrafo 43. Página 11.

Propuesta

Añadir al párrafo 43, el siguiente texto:

(43) [...] El Área de Organización, conjuntamente con las Federaciones y Sectores, procederá en el plazo aproximativo de los tres meses posteriores a cada nombramiento a delimitar por escrito el contenido funcional de cada responsabilidad concreta."

Motivos

Todas las personas y estructuras deben conocer de forma nítida y suficiente las tareas y responsabilidades concretas que se asignan y además, no pueden existir contradicciones al respecto entre el ámbito territorial y sectorial. Ello garantizaría no sólo el conocimiento de sus cometidos por personas y estructuras, sino que permite efectuar una evaluación del desempeño concreto de tales responsabilidades, así como poner en marcha los mecanismos formativos establecidos a tal fin en la planificación establecida por el sindicato.

43. paragrafoa. 8. orrialdea.

Proposamena

43. paragrafoari gehitu honako testu hau:

(43) [...] "Antolakuntza arloak, federazio eta sektoreekin batera, ardurak izendatzen direnetik hiru hilera gutxi gora-behera, idatziz, jasoko du ardura bakoitzaren funtzioak zeintzuk diren."

Azalpena

Pertsona zein egitura guztiek argi izan behar dute zeintzuk diren euren eginkizun eta ardura zehatzak. Gainera, lurralde eta sektore mailan ezin da honen inguruko kontraesanik egon. Horrela, bermatuko genuke pertsonek eta egiturek zehatz-mehatz jakitea zer dagokien eta eginkizun horiek zelan burutzen diren aztertzeko eta prestakuntza mekanismoak abiarazteko; sindikatuak horretarako egindako planifikazioaren barruan.

Emendagilea: Diego Ignacio Gonzalez Moyano

14. emendakina

47. paragrafoa (berria). 9. orrialdea.

Proposamena

46. puntuaren ondoren berria gehitu.

"(47-berria) Gure ereduaren ezaugarritzean kontuan hartu behar ditugu berariazko izaera ematen dioten bi tresna garrantzitsu: gizon eta emakumeen arteko berdintasun plana eta hikuntz normalkuntzarako egitasmoa. Plan hauek estrategikoak dira eta bi gai hauetan sindikatuak bere gain hartzen dituen konpromisoen adierazleak dira."

Azalpena

Plan biek zeharkakotasun trataera dute eta erakundearen barruan nola kanpoko ekintzan eragiteko helburua dute. Garatzen ari dira eta emaitzak eskuratzen ari gara

Párrafo 47 (nuevo). Página 11

Propuesta

Añadir un punto nuevo detrás del párrafo número 46.

" (47-nuevo) Tenemos que tener en cuenta que nuestro proyecto se caracteriza por dos herramientas específicas

que le aportan una personalidad propia: el plan de igualdad entre hombres y mujeres y el plan de normalización lingüística. Los dos son planes estratégicos que a su vez demuestran el compromiso del sindicato en ambos temas."

Motivos

Los planes tienen un tratamiento transversal con el objetivo de incidir tanto dentro como fuera del sindicato. En estos momentos estamos desarrollando dichos planes y ya tenemos algunos resultados.

Emendagilea: Itziar Lopategi

15. emendakina

46. Paragrafoa. 9. Orrialdea.

Proposamena

"*Sektoreetan* militatzen duten kideen funtzioak berdefinitu eta birbanatzea ezinbestekoa zaigu. *Sektoreetan* ditugun gizabaliabideak ...". Birritan agertzen den "sektoreetan" kendu eta "sindikatuan" idatzi.

Bestalde, "[...] Sektoreetan ditugun gizabaliabideak *enpresetara* begira jarri behar ditugu ..." esaldian gehitu "enpresetara *eta herrietara*"

Motivos

Militantziaren berdefinizioa sindikatuko kide guztiontzat delako eraberritze prozesu honetan.

Párrafo 46. Página 11

Propuesta

Cambiar "en los sectores" por "en el sindicato". La frase quedaría así:

"[...] Es imprescindible redefinir y redistribuir las funciones de las compañeras y compañeros que militan *en el sindicato."*

También proponemos añadir a "las empresas" , "las empresas y los pueblos".

"[...] Los recursos con los que contamos *en el sindicato* debemos ponerlos mirando hacia las empresas."

Azalpena

En este proceso de renovación, la redefinición de la militancia tiene que afectar a todas las personas que conforman el sindicato.

Emendagilea: Aitziber Barandika

16. emendakina

60. Paragrafoa. 10. orrialdea.

Proposamena

Hurrengo hau gehitu paragrafoari:

"Sindikatua urte hauetan etengabe hazi *eta aldatu* da, egituretan dauden militanteetaz gain [...]."

Azalpena

Sindikatuaren hazkundeaz aparte, nabarmena da sindikatua aldatu egin dela bai estrukturalki baita beste alor batzuetan. Beraz, aldaketa hori ere aipatu behar da.

Párrafo 60. Página 12.

Propuesta
Añadir lo siguiente al párrafo:
"El sindicato estos años ha estado dentro de un proceso constante *de cambio* y crecimiento".

Azalpena
Además del crecimiento del sindicato, es obvio que el sindicato ha cambiado tanto estructuralemente como en otros ámbitos. Por lo tanto, también es conveniente que aparezca ese cambio.

Emendagilea: Oier Perez Balanzategi

Bi zutabe, eraikin bakarra

17. emendakina
64. Paragrafoa. 11. Orrialdea.

Proposamena
Ezabatu "Dagoeneko dena esanda dago, baina, ..." hitzak.
Paragrafoa horrela geratuko litzateke:
"Urteetan hausnartu dugu herri biltzarrak sindikatuaren organigraman duen garrantziaz eta urte hauetan guztietan, zailtasun objektiboak izan ditugu garatzeko orduan.

Azalpena
Definizioan, oraindik hutsuneak ditugu. Izan ere, Herri Biltzarretan bakoitzak nahi edo ahal duena egiten du; ez horrela definituta ditugulako. Batzuek kontsultak, besteek hauteskundeak, beste batzuek herriko sukalde politikoa, dena, ... egiten dute.

Párrafo 64. Página 13.

Propuesta
Suprimir "todo está dicho" . El párrafo quedaría así:
"Durante años hemos reflexionado sobre la importancia que tiene esta estructura en el organigrama del sindicato, pero en todos estos años hemos tenido dificultades objetivas a la hora de desarrollarla.

Motivos
Todavía tenemos ciertos problemas en la definición de las Asambleas Locales, ya que cada una hace lo que puede o quiere en este ámbito, pero no porque esté así definido. En algunos sitios, atienden consultas, en otros preparan elecciones, otros se dedican a hacer labores de cocima política municipal, otros todo, ...

Emendagilea: Aitziber Barandika

18. emendakina
65. Paragrafoa (berria). 11. orrialdea.

Proposamena
64. paragrafoaren ostean berria sortu:

"(65-berria) Gure interbentzio eremuak enpresak eta herriak izanik, sektore eta herri biltzarrak borrokarako duten gune amakomuna, hots, eskualdeko idazkaritza, indartu beharra dugu. Bakoitza bere gune organizatibotik eta aldi berean guztiok gune beretik, errealitateei aurre egin behar diegu era antolatu eta planifikatuan, sektore guneetatik herrietara behatuaz eta herrietatik enpresetara, elkarlanean, elkar lagunduz."

Azalpena

Paragarafoa sartzeko arrazoien artean, gehienetan, antolatuta gauden gunetik beste guneetara ez delako behatzen, bakoitzak bereari erantzutea du lehentasun. Baina hori ez da horrela izan behar, eskualde batean hainbat gai amankomunatu egin behar dira: erronkak (orokorrak eta sektorialak), borrokarako edo antolatzeko prest leudekeen militanteen oreka organizatiboa (sektore-herri)...

Párrafo 65 (nuevo). Página 13.

Propuesta

Añadir un nuevo párrafo tras el número 64:

"(65-nuevo) Si nuestro ámbito de intervención son las empresas y los pueblos; deberíamos reforzar ese ámbito común de lucha que es el secretariado comarcal. Cada uno desde su nucleo organizativo y al mismo tiempo todos juntos debemos hacer frente a la realidad de forma organizada y planificada. Debemos analizar el pueblo desde los sectores y después desde el pueblo las empresas. Es necesario trabajar conjuntamente y ayurdanos los unos a los otros.

Motivos

Proponemos añadir un párrafo más porque en muchas ocasiones tanto los sectores como los pueblos trabajamos cada uno por nuestra cuenta sin ni tan siquiera mirar que está sucediendo en otros ámbitos; ya que lo nuestro tiene prioridad absoluta. Eso no debería ser así, ya que en una comarca son muchos los puntos que podemos tener en común: los retos generales como sectoriales, el equilibrio organizativo (sectores-pueblos) de la militancia que está dispuesta a luchar y organizarse, ...

Emendagilea: Aitziber Barandika

19. emendakina

69. Paragrafoa, 11. Orrialdea

Proposamena

69. paragrafo osoa ezabatu eta berria sortu. Honako hau da proposamen berria:

"Beraz, sindikatuak hausnarketa serioa egin behar du herri biltzarrak jokatu beharreko paperaz, euren osaketaz eta dinamiken jarraipenaren inguruan, laguntza bideak ireki eta hedatu, Eskualdeko Idazkaritza osoaren lana bilakatzen delarik eskualde indartsua antolatzea herri eta sektoreetatik."

Azalpena

Ponentzian herri biltzarkideen arazoa balitz moduan ulertzen da eta ez guztiona balitz moduan.

Párrafo 69. Página 15.

Proposamena

Eliminar el párrafo entero y añadir en su lugar este otro:

" Por lo tanto el sindicato debería hacer una reflexión seria sobre el papel de las Asambleas Locales, sobre su composición, las dinámicas que deben llevar a cabo y las formas de favorecer la ampliación de la misma, por lo que se convierte en función de todo el secretariado comarcal organizar una comarca fuerte desde los pueblos y los sectores."

Azalpena

En la ponencia da la sensación que el problema es de las personas que participan en las asambleas locales y realmente el problema es del sindicato en general.

Emendagilea: Aitziber Barandika

Emendakinak
Antolakuntza

20. emendakina

76 eta 77 paragrafoa, 12. Orrialdea

Proposamena

Paragrafo biak berridatzi.

(76) "Honekin batera, sail sindikalaren antolakuntza-arduraren garrantzia azpimarratu behar dugu. Ardura benetan klabea. Ekintza sindikal emankorra garatuko badugu, ezinbestekoa da sail sindikala osatzen duten afiliatuen multzoaren eskuhartzea antolatu eta dinamizatzea. Horretarako, garrantzi handia du afiliatuen arteko komunikazio iraunkorra mantentzea eta afiliatuen parte hartze iraunkorra bermatzea sail sindikalaren dinamikan, baita sail sindikalaren eta sektore zein eskualdearen arteko lotura etengabea mantentzea ere."

(77) "Alabaina, sarritan ardura horri bigarren mailako garrantzia ematen zaio, langileen ordezkaritzak dituen arduren menpeko ardura bezala ulertzen delarik, kasu askotan aintzat ere ez delarik hartzen. Horren ondorioz, sail sindikal askotan ez dago sailaren antolakuntzako benetako arduradunik. Ardura hori betetzea bermatu behar dugu; sail sindikalak ikusi beharko du nola betetzen duen, eskualdeko arduradun konfederalaren eta sektorialaren laguntzarekin. Sail sindikalaren delegatuaren figura, estatu espainoleko legeen arabera, enpresaren aurrean sindikatuko afiliazioaren ordezkaritza legala betetzen duena, sail sindikalaren arduraduna babesteko tresna interesgarria izan daiteke."

Azalpena

Sail sindikaleko delegatuaren figura Espainiako legalitateak jasotzen duen figura bat da, afiliatuen multzoak enpresaren aurrean izan dezakeen ordezkariarena alegia. Ponentzian sail sindikalaren delegatua erabiltzen denean, aldiz, hori baino askoz ere gehiago adierazi nahi da. Beraz, nire ustez, ponentziak sail sindikalaren arduradunaren figura azpimarratu behar dugu, eta bere eginkizunak arinki marraztu. Gero ardura hori langileen ordezkari den batek betetzen duen ez da garrantzitsuena. Gehienez, Espainiako legeek jasotzen duten figura hori interesgarria izan daitekeela esan liteke, baina inondik inora ere ez sail sindikalaren ardura eta delegatu sindikalaren figuraren bidez bete behar dela. Izan ere, Eusko Jaurlaritzan, arduak betetzen ditugu, baina ez beti sail sindikaleko delegatu izendatuta dauden pertsonen bidez. Laburbilduz, garrantzitsua EGINKIZUNA, FUNTZIOA, azpimarratzea da, eginkizun edo figura juridiko desberdinen bidez bete daitekeelarik.

Párrafo 76 y 77. Página 16.

Propuesta

Reescribir los párrafos 76 y 77.

"(76) Además debemos subrayar la importancia de la responsabilidad de organización de la sección sindical.. Es una responsabilidad clave. Si queremos desarrollar una acción sindical productiva, es imprescindible organizar y dinamizar la intervención de la afiliación que conforma la sección sindical. Para eso es muy importante mantener una comunicación permanente entre las afiliadas y afiliados y garantizar a su vez su participación en las dinámicas que lleva a cabo la sección sindical. También, que la conexión entre las secciones sindicales y los sectores o las comarcas sea constante.

(77) Pero en ocasiones no se le da la importancia que merece a esa responsabilidad; ya que se entiende que es una responsabilidad por debajo de las responsabilidades que tiene la representación de los y las trabajadoras,

En consecuencia, en muchas secciones sindicales no existe verdaderamente responsable de la organización de la sección sindical. Tenemos que garantizar que se cumpla esa responsabilidad; será la propia sección sindical quien planifique cómo hacerlo con la ayuda de la persona responsable confederal y sectorial de la comarca. Según las leyes españolas, la figura de la persona delegada de la sección sindical es la representación legal de la afiliación del sindicato ante la empresa y puede servir para respaldar a la persona responsable de la sección sindical."

Motivos

El o la delegada de la sección sindical es una figura que representa la afiliación ante la empresa. Pero cuando en la ponencia se habla de esa responsabilidad se da a entender mucho más. En mi opinión, la ponencia debe subrayar la figura de la persona responsable de la sección sindical y hay que señalar también sus funciones. lo más importante no es que esa responsabilidad la ocupe alguien que sea o no delegada o delegado de personal.. Como mucho podemos decir que la figura que recoge la ley española es interesante; pero de ninguna forma que es indispensable que se ocupe mediante la figura del o de la responsable de la sección sindical y el o la delegada sindical. En Eusko Jaurlaritza, quienes tenemos la responsabilidad no siempre somos nombrados por delegados o delegadas de la sección sindical. Es decir, lo importante es subrayar las funciones y dichas funciones podrán cumplirse mediante diversas figuras jurídicas.

Emendagilea: Lander Etxebarria Garitazelaia

21. emendakina

86. paragrafoa, 12. orrialdea

Proposamena

Gehitu honako testua 86. paragrafoari:

"[...] Eskualdeko sektore-arduradunari, lan talde hori, eskualdeko sektore-komitea, alegia, dinamizatzeaz gain, Eskualdeko Idazkaritzan parte hartuz sindikatuaren bizitzaren eta esku hartze konfederalaren planetan parte hartzea ere badagokio. Hori dela-eta, gure egiturako bi zutabeen arteko lotura eta elkar-elikatzeko berebiziko garrantzia duen ardura hau, sail sindikaleko, sektoreko nahiz eskualdeko beste ardura batzuekin ez bateratzen saiatuko gara."

Azalpena

Azalpena testuan bertan emanda dago. Arduren bateratzeak eskualdeko sektore-komiteen dinamizazio eskasa ekarri du nik ezagutzen ditudan kasuetan eta ez bat ez bestea ondo betetzea dakar. Era berean, eskualdeko sektore-arduradunek kontsultak pasatzetik libratu egin behar direla iruditzen zait; nahiz eta ponentziaren testuan horrela azaltzea ez dudan egokia ikusten. Ponentziaren 88. paragrafoan hori berori adierazi nahi duela uste dut. Beraz, 88. paragrafoan adierazten denaren ildotik, sektoreko kontsultak pasatzeko bitartekoak jarri behar direla iruditzen zait, SEKTORE GUZTIETAN, eskualdeko sektore-arduraduna, bete-betean, bere ardura garatzea ahalbidetuz.

Párrafo 86. Página 16.

Propuesta

Añadir el siguiente texto al final del párrafo:

"Además, de dinamizar el comité sectorial comarcal, corresponde a la persona responsable del sector en la comarca participar en la vida y en los planes de intervención del sindicato mediante su presencia en el secretariado comarcal. Por eso mismo, intentaremos no aglutinar a esta responsabilidad otras de la sección sindical, del sector o la de la comarca, ya que tiene gran importancia por ser la unión de las dos columnas que conforman nuestra estructura y ser el responsable de alimentarlas."

Motivos

Aunque los motivos de la enmienda aparecen en la misma, hay que decir que unir las responsabilidades supone, en los casos que yo conozco, una escasa dinamización del comité comarcal sectorial y que no se cumpla ninguna de ellas. A su vez, creo que deberíamos liberar a las personas responsables de los sectores en las comarcas de pasar consultas aunque no creo que deba reflejarse tal cual en la ponencia. Además, parece que es eso mismo lo que se quiere decir en el párrafo 88 y creo necesario poner medios para pasar consultas EN TODOS LOS SECTORES; para que así, la o el responsable del sector comarcal pueda desarrollar plenamente su responsabilidad.

Emendagilea: Lander Etxebarria Garitazelaia

22. emendakina

134/138-147. paragrafoak. 17-18. orrialdeak.

Proposamena

134. paragrafoan Zerbitzu Publikoetara Federazioan dauden sektoreen osaketa aldatu:

Lehen: Zerbitzu Publikoetako Federazioan, *Administrazioa,* Irakaskuntza, *Osasungintza eta Soziokomunitarioa.*

Orain: Zerbitzu Publikoetako Federazioan, *Administrazioak eta Osasun arloa* eta Irakaskuntza, sektoreak.

138. paragrafoa berridatzi:

"Hausnarketa honetan ezin dugu baloratu gabe utzi duela lau urte Administrazio-Osasungintza sektoreen batuketarekin egin genuen apustua. Egin genuen planteamenduak hiru esparru estrategiko bilduko zituen zerbitzu publikoen estrategia sektorial integrala irekitzea zuen helburu, hala nola, jendarte-osasuna, hezkuntza eta administrazio-zerbitzuak eta kudeaketarena, Euskal Esparru Sozio-ekonomikoa eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eraikitzeko oinarrizkoak direnak. Norabide horretan lan egiteko konpromisoa hartu genuen, era berean, etorkizun batean Irakaskuntzako sektorea integratzea posible ikusten genuelarik. Lau urte igaro ondoren, zailtasun handiak aurkitu ditugu VI. Biltzar Nagusian sortutako sektore berri hori sendotu eta azpisektorialki zein eskualdeka garatzeko. Zailtasun horiek atzean arrazoi ugari aurki dezakegu"

139-142 paragrafoak berridatzi eta jaso bi paragrafotan:

(139)"Sektorea osatzen duten sail sindikalen egoerak ez du ahalbidetu antolakuntza sendotzea eta behar bezala garatzea. Bestalde, izaera, egitura ekonomiko eta enpresa-egitura zein negoziazio kolektiboaren aldetik, oso errealitate desberdinak bildu izan dira sektorearen baitan: Administrazio Publiko desberdinak –Autonomikoak, Justizia Administrazioa, Udal Administrazioak, Foru Administrazioa–, beste egitura batzuk dituzten Erakunde Publikoak –Posta zerbitzua, Partzuergoak, izaera desberdineko enpresa publikoak–, Osasun zerbitzu publikoak, osasungintza pribatuko klinikak, pertsonak nagusientzako egoitza pribatu eta publikoak, etxez-etxeko laguntza zerbitzu publiko eta pribatuak eta hedabideak, publikoak eta pribatuak. Horrez gain ezin dugu ahaztu Nafarroa Garaia eta Hego Euskal Herriko beste hiru herrialdeetako marko juridiko-administratibo desberdinak dituztela eta Ipar Euskal Herriko egoera orokorrak (juridiko-politikoa eta sindikala) dinamika desberdinak inposatzen dituela sarritan. Egoera konplexu hau guztia oztopo objektibo bezain gainditu beharra agertzen zaigu, sektore gisa dinamika bateratuak eta antolakuntza sendo bat egituratzeko orduan. Azkenik, hain eremu anitz horiek guztiak sindikatuan egitura sektorial bakarraren azpian egon behar duten ere zalantzan jarri behar dugu."

(140) "Sektore horren baitan, gainera, azpisektore sozio-komunitarioa garrantzi gero eta handiagoa hartzen ari da. Duela lau urte eremu hau azpisektore bezala egituratzeko apustua egin genuen, egun bezain garatua ez zegoen errealitateari erantzuteko. Alabaina, errealitateak gainditu egin ditu azken Biltzar Nagusian sindikatuak egindako aurreikuspenak. Jendartearen bilakaerarekin batera, babes sozialaren arloan bete-betean sartzen diren zerbitzu sozio-komunitarioen demanda areagotu egin da, horiei erantzuteko estamentu politiko

desberdinek (autonomiko, foral zein lokalak) martxan jarri duten neurri andanak kudeaketa neoliberalari erantzuten diolarik."

143. parrafoa bere horretan mantendu zenbakia aldatuta
(141) Neurri hauek isla zuzena izaten ari dira lan munduaren... errealitate berria.

144. paragrafoan "sektore" hitzari gehitu "ekonomiko" berba
Ulertzen da zergaitik gehitu den Iparraldeko ordezkaria, ez ordea, Nafarroakoa. Nafarrak, beste edozein herrialde gisa, egitura guztietan txertatuta daude. Errealitate instituzionalaren eragin soilak ez gintuzke horretara behartu beharko. Nafarrek azterketa eta dinamika sozio-politiko bereziak behar dituzte? Eta Arabak?

Párrafo 246. Página 34.

Propuesta

Suprimir la vocalía que corresponde a Nafarroa.

Motivos

Es comprensible que Ipar Euskal Herria tenga una vocalía en el Comité Ejecutivo; no así Nafarroa. Nafarroa, como cualquier provincia está presente en todas las estructuras. El simple hecho de tener otra realidad institucional no debería ser motivo para ello. ¿O es qué Nafarroa necesita análisis y dinámicas diferentes a las demás provincias? ¿Y Araba no?

Emendagilea: Aitziber Barandika

41. emendakina

247. paragrafoa. 34. orrialdea.

Proposamena

Paragrafoa kendu.

Azalpena

Zuzendaritza lana aurrera ateratzeko beharrezkoak diren bitartekoak sortuko direla erabakitzekotan,

bitarteko hauei buruzko hausnarketan kokatu behar dugu exekutiboak beharko dituenak.

Párrafo 247. Página 34.

Propuesta
Quitar el párrafo.

Motivos
A la hora de decidir los instrumentos necesarios para llevar a cabo el trabajo de dirección, deberemos situar en la reflexión sobre estos instrumentos aquellos que necesitará el ejecutivo.

Emendagilea: Nazio Komitea

42. emendakina
Párrafo 251. Página 34.

Propuesta
El punto 251 define las funciones del Secretariado Comarcal y entre ellas se señala: "[...] Desarrollar dinámicas de respuesta a la siniestralidad laboral."
Propongo añadir en ese punto lo siguiente: *"y respuestas movilizadoras de denuncia a las diferentes agresiones a la salud que nos producen las actuales condiciones de trabajo, las formas autoritarias de organización y relación así como las malas prácticas de mutuas y servicios de prevención."*

Motivos
La salud se pierde en o por el trabajo no sólo en accidentes de trabajo y por ello hemos de responder a todas las agresiones en busca de un trabajo decente y denunciando como se indica en el lema del 28 de abril "Algunos trabajos matan y otros no nos dejan vivir".

251. paragrafoa. 28. orrialdea.

Proposamena
251. paragrafoan Eskualdeetako Idazkaritzen funtzioen artean honako hau agertzen da: "[...] Lan istripuen kontrako erantzun dinamikak bultzatuko ditu".
Horri honako testu hau gehitu beharko litzaioke: ***"Lan baldintzek, lana antolatzeko eta hartu-emanetarako modu autoritarioek eta mutuen eta prebentzio zerbitzuen jarduera ankerrek egun osasun galera ugari eta anitz eragiten dituzte. Horien aurrean ere erantzun eta salaketa dinamikak bultzatuko ditu."***

Azalpena
Osasuna lanean edo lanaren ondorioz galtzen dugu eta horrexegatik, gertatzen diren erasoei erantzun egin behar diegu, enplegu duinaren alde eta egoerak salatuz. Horren adibide, 2008ko apirilaren 28ko leloa: "Algunos trabajos matan y otros no nos dejan vivir."

Emendagilea: Juan José Rodríguez Horna

43. emendakina
Párrafo 251. Página 34.

Propuesta
Cuando dice "Tomar parte en el desarrollo de los sectores de la comarca junto con los y las responsables sectoriales." añadir la siguiente explicación:

"En ese sentido, la secretaria o secretario comarcal junto con los sectores y secciones sindicales afectados, adoptarán las medidas organizativas precisas para que las secciones sindicales de ámbito supracomarcal o que intervienen en empresas complejas (por ejemplo: multiactividad, pluralidad de convenios colectivos, multiplicidad de centros de trabajo) encuentren el punto de conexión e interlocución adecuados para la realización de una acción sindical eficaz."

Motivos

Muchas secciones sindicales ostentan un ámbito de acción superior al de la comarca concreta, con centros de trabajo e incluso Comités de Empresa o delegadas y delegados de personal diseminados en distintas empresas. Esta realidad, junto con la existencia de empresas "complejas" que pueden desarrollar actividades absolutamente dispares e incardinables en distintos Convenios Colectivos, aconsejan un análisis en profundidad y el de la propia Organización no resulten contradictorios, de forma que la primera encuentre de forma clara en la segunda los medios e instrumentos precisos.

251. paragrafoa. 28. orrialdea.

Proposamena

251. paragrafoaren 12. puntuak honela dio: "Eskualdeko sektoreen garapenean parte hartuko du sektoreetako arduradunekin batera."

Horren ostean gehitu honako argibidea:

"Eskualdeko Idazkaritzak unean uneko sektore eta sail sindikalekin batera, beharrezkoak diren antolakuntza neurriak jarriko ditu eskualdez haratagoko sail sindikalek edo enpresa korapilatsuek (jarduera anitzekoak, hitzarmen kolektibo ugarikoak, lantoki anitzekoak) ekintza sindikal eraginkorra burutzeko behar duten interlokuzio edo lotura gunea izan dezaten."

Azalpena

Sarritan, sail sindikalen ekintza eremua ez dagokio eskualde bati konkretuki. Besteak beste, lantoki edota enpresa batzorde edo delegatuak eskualdeetan barreiatuta daudelako. Batetik, errealitate hori eta bestetik, enpresa korapilatsuak (hitzarmen ezberdinak, jarduera ezberdinak) daudela kontuan hartzen badugu beharrezkotzat jotzen dugu egoeraren hausnarketa sakona egitea sail sindikala eta gure antolakuntza bera ez daitezen kontrajarriak izan. Honela, sail sindikalek behar duten baliabide eta tresnak antolakuntzan aurkitzea bermatuko baitugu.

Emendagilea:Diego Ignacio Gonzalez Moyano

44. emendakina

251. paragrafoa. 28. orrialdea.

Proposamena

11, 12, eta 13, azpipuntuei "sektoreen" dioen tokian "sektoreen eta herrien" gehitu.

Azalpena

Sektoreek bai, baina herriek ere bere mapa eta interbentzio plana behar dute.

Párrafo 251. Página 34.

Propuesta

En los puntos 11, 12 y 13 cambiar "los sectores" por "los sectores y pueblos".

Motivos
Además de los sectores, los pueblos también necesitan su mapa y plan de intervención.

Emendagilea: Aitziber Barandika

45. emendakina
251. paragrafoa. 28. orrialdea.

Proposamena
Azkeneko puntuari gehitu honako esaldia:
"Hiriburuetako Idazkaritzetan, Aukera Berdintasun eta Hizkuntza Normalkuntzarako planak garatuko dira."

Azalpena
Aurreko puntuan oinarrituta, baita aurreko Biltzar Nagusian hartutako erabakiak hobetzeko.

Párrafo 251. Página 34.

Propuesta
Añadir al último punto de las funciones
"En las secretarías de las capitales se desarrollarán los planes de igualdad de oportunidades y normalización lingüística".

Motivos
Basándonos en el punto anterior también tendrá que adoptar las decisiones acordadas en el anterior Congreso.

Emendagilea: Arantza Vázquez

46. emendakina
252. paragrafoa.28. orrialdea.

Proposamena
Azkeneko puntuari gehitu honako testua:
"[...]Hiriburuetako Idazkaritzetan Emakume arduraduna eta Euskara arduraduna egongo dira"

Azalpena
Zeharlerroetako arduraren inguruan egindako proposamenari lotuta. Baita aurreko Biltzar Nagusian hartutako erabakiak betetzeko.

Párrafo 252. Página 34

Propuesta
Añadir al últimos punto esta frase:
"[...] En las secretarías de las capitales habrá responsables del área de la mujer y del euskara."

Motivos
Acorde con la propuesta sobre la responsabilidad de transversales y para hacer cumplir las decisiones adoptadas en el anterior Congreso.

Emendagilea: Arantza Vázquez

47. emendakina

252. paragrafo. 28. orrialde.

Proposamena

Hiriburuetan politika sozialeko ardura ezarri.

Azalpena

Azken Biltzar Nagusian hiriburuetan politika sozialeko ardura ezarriko zela adostu genuen. Hitza ez betetzeaz gain, ponentzietatik desagertu egin da; beraz, Bilbotik ezartzeko eskatzen dugu

Párrafo 252. Página 34.

Propuesta

Reestablecer la responsabilidad de política social en las capitales.

Azalpena

En el último Congreso acordamos que en las capitales existiría la responsabilidad de política social, pero además de nu cumplir lo acordado a desaparecido de la ponencia. Es por ello que desde Bilbo pedimos se reestablezca esa responsabilidad.

Emendagilea: Angel Miragaya Miragaya.

48. emendakina

Párrafo 253. Página 35.

Propuesta

Añadir, "como referencia".

Motivos

Normalmente si hay materia para tratar en un comarcal semanalmente, pero dependiendo de la comarca, las circunstancias y los conflictos que puedan surgir, puede que no sea necesario un comarcal semanal.

Por eso se propone que sea más flexible, es decir si realmente es necesario una vez a la semana debe hacerse, pero si el flujo informativo y la problemática de la comarca no lo demandan, puede hacerse más tarde. Por esto se propone añadir "como referencia".

Párrafo 253. Paágina 35.

Proposamena

Gehitu "erreferentziatzat hartuta"

Azalpena

Gehienetan eskualdeko idazkaritza astero biltzeko beste informazio izaten bada ere; eskualdearen egoera eta gatazken arabera, ez da beharrezkoa astero elkartzea. Horregatik, malgutasun gehiago izatea proposatzen da, ez dadin derrigorrezkoa izan; baina informazio fluxuak edo eskualdeko problematikak premia badute egin dezaten.

Emendagilea: Joseba Gomez Gregorio

49. emendakina

253. paragrafoa. 29. orrialdea.

Proposamena

Maiztasuna hiru astetik bitan izatea.

Azalpena

Asteroko dinamikak denbora asko suposatzen du. Eskualdeko Idazkaritzak dinamika indartsua eraman behar duela dionean ados gaude, baina hiru astetik bitan bilduta aski litzateke, batean, Nazio Komiteko edo nazio mailako gaiak jorratzeko eta hurrengoan eskualdekoak lantzeko. Liberatu sektorialek ere tarteak behar dituzte euren delegatuak dinamizatzeko.

Párrafo 253. Página 35.

Propuesta

Cambiar la periodicidad, en vez de semanal; "dos veces cada tres semanas" .

Motivos

Estamos de acuerdo en que el secretariado comarcal necesita una dinámica fuerte pero reuniéndose dos veces cada dos semanas sería suficiente ya que la dinámica semanal requiere muchísimo tiempo. En una de las reuniones, se tratarían los temas nacionales (los del Comité Nacional) y en el segundo los de la comarca.De esta forma las personas liberadas y responsables de los sectores podrían dinamizar a delegados y delegadas.

Emendagilea: Aitziber Barandika

50. emendakina

Párrafo 254. Página 35.

Propuesta

Sin poner en cuestión que la estructuración comarcal de LAB sean 17 comarcas, propongo que la comarca de Iruñaldea-Pirineoak incluya Baxe Nafarroa, quedando una comarca que se llame Iruñaldea-Pirineoak-Baxe Nafarroa y que la comarca llamada Ipar Euskal Herria quede conformada por Lapurdi y Zuberoa.

Motivos

Euskal Herria es un pueblo sin Estado que se divide en seis herrialdes, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa y Zuberoa. Para algunas personas incluidas algunas de la izquierda abertzale y para algunos partidos políticos, existe un séptimo herrialde llamado Baxe Nafarroa lo cual no es más que un error hitórico que viene desde que Antoinne D´Abaddie formuló que eran siete los herrialdes, más tarde fue Sabino Arana el que se inventó el término Euzkadi y volvió Baxe Nafarroa como un herrialde más reforzando el error, Baxe Nafarroa es la sexta Merindad de Nafarroa.

254. paragrafoa. 29. orrialdea.

Propuesta

LABen 17 eskualdeko egituraketa zalantzan jarri gabe, egun Iruñaldea-Pirineoak deitzen den eskualdeak Baxe Nafarroa ere jaso dezala eta Ipar Euskal Herria eskualdea Lapurdi eta Zuberoara muga dadila proposatzen da.

Azalpena

Euskal Herria se herrialdetan banatuta dagoen (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa) Estaturik gabeko herria da. Ezker abertzaleko zenbait partaiden ustez eta alderdi politiko batzuentzako, Baxe

Nafarroa deitutako zazpigarren herrialde bat dago. Baina hori, Antoinne D´Abaddiek ezarritako akats historiko bat bestetik ez da. Beraz izan zen zazpigarren herrialdea asmatu zuena eta horren ondoren, Sabino Aranak Euzkadiren asmakuntzarekin berriz ere Baxe Nafarroa herrialde bat dela berretsi zuen. Baina Baxe Nafarroa, Nafarroaren seigarren merindadea da.

Emendagilea: Koldo Mikel Munilla Saso

51. emendakina

Párrafo 255. Página 35.

Propuesta

Añadir otro punto a las funciones.

"Será el marco de debate e información de todos los temas que se llevan al Nazio Biltzarra con anteriodad".

Motivos

Sus componentes serán partícipes mucho más de la vida sindical, sinque sean debates vinculantes.

255. paragrafoa. 29. orrialdea.

Proposamena

Beste puntu bat gehitu funtzioei:

"Nazio Biltzarrean landuko diren gau guztiak aurrez eztabaidatzeko eta informatzeko markoa izango da.

Azalpena

Marko honetan partaideek gertutik biziko dute sindikatua; nahiz eta, eztabaidak lotesleak izango ez diren

Emendagilea: Nazio Komitea

52. emendakina

255 eta 256. paragrafoak. 29. orrialdea.

Proposamena

Paragrafo biak ezabatu; hau da Eskualdeko Kontseilua gure egituratik kendu.

Azalpena

4.2.1..- Eskualdeetako Idazkaritzak gaiarekin solapatu egiten da. Beraz, eskualdeetan aurrera eramateak baliabideen gehiegizko erabilpen bat izango da, lan karga handiagorekin baina azken finean beste organu batek betetzen dituen funtzioak egiteko.

Párrafos 255 y 256. Página 35.

Propuesta

Suprimir los dos párrafos. Es decir eliminar de nuestra estructura el Consejo Comarcal.

Motivos

Se solapa con el punto 4.2.1.-Secretariado Comarcal. LLevar a cabo el Consejo Comarcal supone un gran esfuerzo y una carga de trabajo. Además, cumple funciones que también se definen entre las de otros órganos.

Emendagilea: Aitor Iturraga Zugazartazar

53. emendakina
Párrafo 259. Página 36

Propuesta
Añadir a la composición de la Asamblea comarcal de delegados y delegadas la siguiente frase:
"así como las personas responsables en el área de pensionistas del mismo ámbito.

Motivos
Debido a que las personas pensionistas no tienen delegadas y delegados que puedan estar en las asambleas, entendemos que esta formula posibilitaría su participación.

259. paragrafoa. 29. orrialdea.

Proposamena
Gehitu honako esaldia eskualdeetako delegatuen batzarren osaketari:
"baita eremu horretako pentsionisten arloko arduraduna".

Azalpena
Pentsionistek ez daukatenez asanbladetan ordezkatuko dituen delegaturik, fomula honek pentsionisten parte hartzea bermatuko lukeela uste dugu.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda

54. emendakina
268. paragrafoa. 30. orrialdea.

Proposamena
Federazioetako komiteetako osaketan agertzen den "sektoreetako arduradun nazionalak" ordezkatu eta "sektoreetako exekutiboko bina kide" ipini.

Azalpena
Antolakuntza ponentziarako sektorializazioa atalean, bi zutabe eta eraikin bakarreko antolakunde bezala definitzen den sindikatu honen egituraketa bikoitzaz (lurralde-sektore) egoeraren azterketa zuzen hau egiten da:

1.- Behin eta berriro azpimarratzen denez, azken Biltzar Nagusian lurralde egituraren indartzearen alde jarri zen balantza (115. paragrafoa) eta ondorioz lurraldeko diseinua oso finkatua daukagu baino sektorializazioan ereduaren egokipenaren bila gabiltza (113. paragrafoa).

2.- 6. Biltzar Nagusian sektoreetako zuzendaritza organuetan planteatu zen bikoizktarekin (sektoreko exekutiboa eta sektoreko nazio komitea) (122. paragrafoa) ez dugu sektoreetako arduradun nazionalen bakardadea gainditzea lortu (124. paragrafoa) ez dugu talderik osatzea lortu.

Egoera honi aurre egiteko neurri batzuk planteatzen dira:

1.- Sektoreetako zuzendaritza guneak indartzea (132. paragrafoa).

2.- Hiru federazio sortzea (133. paragrafoa) asteroko maiztasuna izango duten Federazioetako komiteak osatuz (269. paragrafoa), bertan Federazioko Idazkaria eta Federazioko Interbentziorako arduradunaz gain sektoreetako arduradun nazionalak egongo liratekeelarik. (268. paragrafoa).

3.- Federazioetako Idazkariak Exekutiboko kide izatea (245. paragrafoa).

4.- Sektoreko arduradun nazionalak Nazio Komitetik ateratzea (240. paragrafoa)

Baina diseinu honek zenbait hutsune nagusi ditu eta emendakin honen helburua horiek jasotzea du:

- Federazio diseinu berri honetan sortzen da federazio mailako marko bakarra "Federazio Komitea" da eta sektore baten presentzia-aportazioa pertsona bakar baten gain geratzen da printzipioz, sektoreko arduradun nazionalarengan hain zuzen ere. Beraz, sektoreko arduradun nazionalaren bakardadea areagotu egiten dela esan daiteke, ibilbide federal berri honetara bakar bakarrik abiarazten baitugu.

- Sektoreak jakina denez, azpisektoreetan ditugu antolatuak eta nahiz eta azpisektore guzti horiek biltzen dituen sektore mailako bi zuzendaritza organu baditugun, norberaren azpisektoreaz haratago analisia egokiak egiteko eta ardura mailetan konprometitzeko koadroak ez ditugu lortu; sektoreko ikuspegi orokorra eta ardura-erabakien zama arduradun nazionalaren gain geratu da ia esklusiboki, zama astuna benetan bakar bakarrik asumitzeko.

- Emendakinean planteatzen den aldaketarekin (sektoreko arduradun nazionalaren ordez sektoreko exekutiboko bi kide izatea Federazioko komitean sektorearen ordezkariak, horietako bat sektoreko arduradun nazionala izatea behartu gabe) sektorearekiko ardura maila handi bat hartzen duten bi kide gehiago izango genituzke sektoreko arduradun nazionalaren alboan.

- Ezin ahantzi Federazioan antolatze honetan, berria izanik gure sindikatuan, Zerbitzu publikoen kasuan gutxienez, lehenengo urteetan behinik behin teorizazio mailan esfortzu handia egin beharko dela, ordu asko dedikatu beharko zaizkio Federazioaren konfigurazio teoriko-praktikoari. Eta sektoreko arduradun nazionalak lanaz lepo dabiltzala guztiok badakigu; ez dut uste erronka honi behar bezala aurre egiterik izango zuketenik, egokiagoa iruditzen zait hain itota ez dabiltzan sektoreko exekutiboko beste bi kide izatea ibilbide federalaren lehenengo etepan arituko direnak.

Párrafo 268. Página 36.

Propuesta

En el punto 268, cambiar la tercera función que dice "responsables nacionales de los sectores" por "dos miembros del ejecutivo sectorial".

Motivos

En el apartado sobre sectorialización, el sindicato se define como un edificio basado en dos columnas. El análisis que se hace de esta estructuración es totalmente acertado:

1.- Se recalca que el sindicato hizo hincapié en reforzar el diseño territorial en el último Congreso (párrafo115) y como consecuencia tenemos un diseño territorial muy afincado, pero un modelo de sectorialización que todavía tiene notorias carencias (párrafo 113).

2.- No hemos conseguido superar la soledad en la que se encontraban las y los responsables sectoriales nacionales (párrafo 124) aunque para ello en el 6. Congreso planteábamos la duplicación de los órganos de direccíon sectorial (ejecutiva sectorial y comité nacional del sector) (párrafo 122).

Para hacer frente a esta situación se plantean algunas medidas:

1.- Reforzar los núcleos de dirección de los sectores (párrafo 122).

2.- Crear tres Federaciones (párrafo 133) que se reunirán todas las semanas en los comités federales (párrafo 269). El comité federal lo componen el secretario o secretaria de la Federación, el o la responsable de Intervención de la Federación junto con los o las responsables nacionales del sector. (párrafo 268).

3.- Que los o las secretarias de las Federaciones participen en el Comité Ejecutivo (párrafo 245).

4.- Sacar a los y las responsables nacionales de los sectores del Comité Nacional (párrafo 240)

Pero este diseño tiene unos defectos importantes que han motivado esta enmienda.

- Basado en este nuevo diseño se ha creado un único marco a nivel federal llamado Comité Federal en el que la presencia-aportación de los sectores recae sobre una única persona: el o la responsable nacional sectorial. Por ello, vemos que esa persona se encuentra más sola que antes aún ya que se enfrenta ella sola a un nuevo reto federal.

- Tenemos organizados los sectores en subsectores y, aunque dispongamos de dos órganos de dirección a nivel sectorial que incluyen a todos estos subsectores, no hemos conseguido cuadros que se comprometan en niveles de responsabilidad para realizar análisis de calado más allá del subsector de cada cual. En consecuencia, la perspectiva general del sector y la carga de tomar decisiones recae casi exclusivamente sobre el o la responsable nacional. Realmente es una carga muy pesada.

- El cambio que plantea la enmienda (que sean dos del ejecutivo sectorial quienes sustituyan al responsable sectorial nacional en el Comité Federal en representación del sector) supone que dos personas más asuman una gran responsabilidad respecto al sector junto con el o la responsable nacional sectorial.

- No podemos olvidar que en la organización de las Federacaiones, al ser algo nuevo en el sindicato, por lo menos en el caso de Servicios Públicos, habrá que hacer una gran esfuerzo en materia de teorización por lo menos el primer año y que habrá que dedicarle muchas cosas a la configuración teórico-práctica de las Federaciones. Teniendo en cuenta que las y los responsables nacionales sectoriales tienen muchísimo trabajo, creo difícil que puedan hacer frente como es debido a este reto y me parece acertado que sean dos personas del Ejecutivo sectorial las que se ocupen de echar a andar este reto federal.

Emendagilea: Eneko Yurramendi Aleman.

55. emendakina
268. paragrafoa. 30. orrialdea.

Proposamena
Federazioetako komiteen osaketan gehitu "Lan Osasuneko arduraduna"

Azalpena
Arlo hau indartzea komenigarria deritzogu. Beraz, Federazioek lan osasuneko arduradun bat edukitzea ezinbestekoa da.

Párrafo 268. Página 36.

Propuesta
Añadir "Responsable de Salud Laboral" a la composición de los Comités Federales.

Motivos
Creemos que es conveniente reforzar este área y por lo tanto es imprescindible que las Federaciones tengan una persona responsable de salud laboral.

Emendagilea: Aitziber Barandika

56. emendakina
271. paragrafoa. 31. orrialdea.

Proposamena
Kendu osaketatik "berdintasuna" eta "euskara" eta horren ordez, sartu "Aukera Berdintasunerako arduraduna" eta "Euskara Normalkuntzarako arduraduna".

Azalpena
Aurreko puntuan planteatzen den funtzioa betetzeak arduraduna eskatzen du, are gehiago bi gai hauen izaera kontuan hartzen badugu.

Párrafo 271. Página 37.

Propuesta

Sustituir las palabras "igualdad" y "euskara" por "responsable de igualdad de oportunidades" y "responsable de normalización lingüística".

Motivos

Cumplir las funciones que se platean en el punto anterior requiere una persona que se ocupe de ello, y con más razón aún si tenemos en cuenta de qué temas estamos hablando.

Emendagilea: Miren Conde, Arantza Vázquez, Itziar Lopategi eta Jagoba Zulueta.

57. emendakina

Párrafos 270 y 278. Páginas 37 y 38.

Propuesta

En el párrafo 270, el punto que dice "elegir a las personas del sector que acudirán a la Asamblea Nacional" añadirlo a las funciones de la Asamblea Sectorial de delegados y delegadas.

Motivos

Por dos razones fundamentales:

- Por entender que es más democrático, dado que nuestros representantes en dicha asamblea,serían elegidos o elegidas por otra asamblea más participativa, con lo que ello conlleva.
- Porque entiendo que es más coherente, con el hecho de que las personas que acudirán a la Asamblea Nacional en representación de las comarcas sean elegidas en Asamblea Comarcal.

270 eta 278. paragrafoak. 37 eta 38. orrialdeak.

Proposamena

Sektoreetako nazio komiteak atalean, 270 paragrafoan agertzen den "Sektoreak Nazio Biltzarrean izango dituen ordezkariak hautatu"
funtzioa Sektoreetako delegatuen batzarren funtzioen artean kokatu.

Azalpena

Arrazoi nagusi bi daude:

- Nazio Biltzarrean sektoreak izango dituen ordezkariak delegatuen batzarrak; hau da beste asanblada batek, aukeratuz gero demokratikogoa izango litzateke hautaketa bera.
- Ustez dut zentzu gehiago daukala Nazio Biltzarrera sektorearen izenean joango direnak eskualdeetako asanbladetan aukeratzea eta eskualdeen ordezkari parte hartzea.

Emendagilea: Jose Felix Aguilera Iturbe-Ormaetxe

58. emendakina

274. paragrafoa (berria). 31. orrialdea.

Proposamena

273. paragrafoaren ostean, puntu berri bat sortu sektoreetako exekutiboak atalean.
Honako hau da proposamena:
"(274-berria) · Sektoreko herrialde gunea:
· Funtzioak:

- Herrialde mailako sektore hitzarmenen aurrean, plangintzak eta jarraipena egitea.

- Herrialdeko edo herrialde bateko eskualde ezberdinetan kokatuko enpresa baten gatazka aurrean, plangintza eta jarraipena egitea.

- Herrialdeko azterketa sektorialak egitea.

· Dinamizatzailea:

- Sektoreko Exekutiboko partaide bat.

· Osaketa:

- Sektoreko Exekutiboko partaidea (dinamizatzailea).

- Herrialdeko eskualdeko sektore arduradunak."

Azalpena

Borroka errealak aurrera ateratzeko, marko nazionala ez da nahikoa. Herrialdeko hitzarmenen inguruko borroka planifikatzea edo gatazka konkretu baten aurrean, eraginorragoa delako herrialdeko marko naturaletik egitea borrokaren jarraipena zuzenagoa ahalbideratzen duelako. Sektoreetako eskualde arduradunak naturalagoa dute herrialde markoetan ekarpenak egitea.

Párrafo 274 (nuevo). Página 37.

Propuesta

Añadir al punto 4.3.4 otro párrafo.

(274-nuevo)· Comité sectorial provincial

· Funciones:

- Planificar y hacer balance de los convenios sectoriales provinciales.

- Planificar y hacer seguimiento de los conflictos de empresas que estén situadas en diferentes comarcas de la misma provincia o empresas de ámbito provincial.

- Hacer análisis sectoriales provinciales.

· Dinamización:

- Una persona del ejecutivo sectorial.

· Composición:

- Un persona del ejecutivo sectorial (la persona que se ocupe de la dinamización).

- Responsables de los sectores de la comarca de ese herrialde. "

Motivos

El marco nacional no es sufuciente para llevar adelante lasluchas reales. Es necesario crear un marco provincial, más cercano y natural ya que será más efectivo para hacer un seguimiento y planificación de la lucha en orno al convenio provincial. Las personas responsables sectoriales de las comarcas aportarán con más facilidad por su cercanía en los marcos provinciales.

Emendagilea: Aitziber Barandika

---

59. emendakina

274. paragrafoa. 31. orrialdea.

Proposamena

274. paragrafoan, 4. azpi-puntuan, gehitu honakoa esaldiari:

"[...] eskualdeko idazkariarekin batera".

Arrazoiak

Hedapenerako egon daitezkeen militanteen artean, oreka lortu behar du eskualdeak. Batzuk, sektorean lan egin dezakete eta beste batzuek herri biltzarra edo arloak dinamizatu ahal dituzte. Horretarako, eskualdeko ikuspuntu orokorra eduki behar dute hedapena egiten denean.

Párrafo 274. Página 38.

Propuesta
Añadir la siguiente frase al cuarto punto del párrafo 274:
"[...] junto con el o la secretaria comarcal.

Motivos
La comarca tiene que conseguir que exista un equilibrio entre la militancia que se dedique a la extensión del sindicato. Por un lado, habrá personas que tendrán que trabajar en el sector, y otras que se dediquen a las asambleas locales o a dinamizar las áreas. Por ello es fundamental que exista un punto de vista global cuando se vaya a trabajar la extensión.

Emendagilea: Aitziber Barandika

60. emendakina
283. paragrafoa. 33. orrialdea

Proposamena
Ekintza sindikaleko batzordeko osaketari dagokionez "Gazte Idazkaria une puntualetan" gehitu.

Azalpena
Lehen esan bezala, Gazte Idazkaritzaren beharra ikusten denez; besteekin batera (emakumea eta euskara) hor kokatzea litzateke egokiena.

Párrafo 283. Página 39.

Propuesta
Añadir, a la composición de la Comisión de acción sindical "Secretaria o secretario de juventud, en momentos puntuales".

Azalpena
Anteriormente, planteábamos la necesidad de tener una Secretaría de juventud. Por eso mismo, creemos que sería adecuado que participara en esta comisión junto con el Secretaría de la mujer y de euskara.

Emendagilea: Aitziber Barandika

61. emendakina
283. paragrafoa. 33. orrialdea

Proposamena
Kendu "une puntualetan" bai Euskara Idazkariari bai Emakume Idazkariari dagokionez.

Azalpena
Zeharlerroei buruzko gogoetari lotuta eta horrez gain ulertezina delako plan bien helburua ekintza sindikalean eragitea baita.

Párrafo 283. Página 39.

Propuesta
Suprimir "en momentos puntuales" cuando se refiere a la secretaria de la mujer y de euskara.

Motivos

Al hilo de la propuesta sobre transversales y porque es incomprensible si de verdad la intención de los dos planes es incidir en la acción sindical.

Emendagilea: Miren Conde, Arantza Vázquez, Itziar Lopategi eta Jagoba Zulueta

62. emendakina

287. paragrafoa. 33. orrialdea

Proposamena

"Zehar-lerroetako idazkaria" horren ordez, "Emakume Idazkaria eta Euskara Idazkaria" jartzea

Azalpena

Zeharlerroetako proposamenari lotuta.

Párrafo 283. Página 40.

Propuesta

En vez de "secretaria de transversales" "secretaria de la mujer y secretaria o secretario de euskara".

Motivos

Al hilo de la propuesta sobre transversales.

Emendagilea: Miren Conde, Arantza Vázquez, Itziar Lopategi eta Jagoba Zulueta

63. emendakina

290. paragrafoa. 33 y 34. orrialdea.

Proposamena

Gehitu esaldi hau:

"Sindikatuak dituen plan estrategikoen jarraipena, hedapena eta gauzapena".

Arrazoiak

Zeharlerroen inguruan egindako gogoetaren haritik eta antolakuntza planen aplikapen eta hedapen eremua delako.

Párrafo 290. Página 40

Propuesta

Añadir *"El seguimiento, difusión y materialización de los planes estratégicos que tiene el sindicato".*

Motivos

Al hilo de las propuesta de políticas transversales ya que es la aplicación de los planes de organización y difusión.

Emendagilea: Miren Conde, Arantza Vázquez, Itziar Lopategi eta Jagoba Zulueta

64. emendakina

291. paragrafoa. 34. orrialdea.

Proposamena

Kendu "zeharlerroetako idazkaria" eta gehitu "emakume idazkaria eta euskara idazkaria".

Arrazoiak

Zeharlerroen inguruan egondako gogoetaren haritik eta antolakuntza planen aplikapen eta hedapen eremua delako.

Párrafo 291. Página 40.

Propuesta

Quitar "la secretaria de transversales" y añadir "responsable de la mujer y responsable de euskara".

Motivos

Al hilo de la propuesta de transversales y porque organización es el ámbito de aplicación y extensión de los planes .

Emendagilea: Arantza Vázquez, Miren Conde, Itziar Lopategi eta Jagoba Zulueta.

65. emendakina

302. paragrafoa. 35. orrialdea.

Proposamena

Funtzioen laugarren puntuan, gehitu *"eta hedapena ziurtatzea sindikatuan"*.

Arrazoiak

Lege aldaketen edo berrien hedapena eta berauen irakurketa politiko sindikala, egunean eta ahalik eta azkarren eduki behar dugulako.

Párrafo 302. Página 302.

Propuesta

Añadir al cuarto punto del párrafo de funciones, el siguiente texto: *"y garantizar que llegará a todo el sindicato"*

Motivos

Es imprescindible que todo el sindicato tenga conocimiento de los cambios de la leyes o de la publicación de leyes nuevas. También es muy importante quese difunda el análisis político sindical de esas leyes llegue a todo el sindicato.

Emendagilea: Aitziber Barandika

66. emendakina

305. paragrafoa. 36. orrialdea.

Proposamena

Batetik, gehitu "Federazioetako Lan Osasun arduradunak". Eta bestetik kendu azkeneko puntua "Interbentzio esparru hau egitura desberdinetan lantzen eta dinamizatzen ari diren kideak."

Azalpena
Idazkaritza hau indartzea beharezkoa da sindikatuarentzako gure interbentizoan gero eta indar gehiago eman diezaiogun era antolatuan. Beraz, Federazioek Lan Osasun arduradun bat edukitzea ezinbestekoa da.

Párrafo 305. Página 42.

Emendakinak
Antolakuntza

Propuesta
Añadir "responsables de Salud Laboral en las Federaciones y suprimir el último punto en el que dice " integrantes del sindicato que tratan y dinamizan este ámbito de intervención en distintas estructuras. "

Motivos
Es necesario reforzar éste secretariado para que coja más fuerza en el sindicato y para que de una forma organizada salga fortalecida también nuestra intervención. En conclusión, es imprescindible que exista una persona responsable de Salud Laboral en las Federaciones.

Emendagilea: Aitziber Barandika.

67. emendakina
305. paragrafoa. 36. orrialdea.

Proposamena
Gehitu *"sektoreetako lan osasun arduradunak"*.

Azalpena
Idazkaritza hau indartzea beharrezkoa da sindikatuarentzat gure interbentzioan gero eta indar gehiago eman diezaiogun era antolatuan, beraz, Federazioek Lan Osasun arduradun bat edukitzea ezinbestekoa da.

Párrafo 305. Página 42.

Propuesta
Añadir *"sektoreetako lan osasun arduradunak".*

Motivos
Es necesario reforzar éste secretariado para que coja más fuerza en el sindicato y para que de una forma organizada salga fortalecida también nuestra intervención. En conclusión, es imprescindible que exista una persona responsable de Salud Laboral en las Federaciones.

Emendagilea: Aitziber Barandika.

68. emendakina
Párrafo 309. Página 43.

Propuesta
Creo necesaria la creación de un secretariado o área para la inmigración y la emigración o bien la ampliación de las funciones de la Secretaría de Internacionales, recogiendo los dos aspectos mencionados: inmigración y emigración.

Motivos

Desde el comienzo de la ponencia (pag. 5 punto 7, pag. 8 punto 27) se recoge el fenomeno de las migraciones como uno de los aspectos crueles y rechazables de las nuevas políticas neoliberales (aunque también lo ha sido y lo es de las viejas políticas liberales). Aspecto que en esta ponencia se analiza como cuestión a tener en cuenta y como objetivo de lucha. Es así que en la pag. 8 y en el punto 28 se pone el ejemplo acaecido con la malograda Directiva Bolkestein. Si no nos importara el fenomeno de la emigración-inmigración no lucharíamos por los derechos de ningún emigrante ni en origen ni en destino. Por ello, si estoy de acuerdo en lo que dice el punto 42 de la pag. 10 respecto a la participación de LAB en Comités de empresa de otros paises europeos, peri si vamos a otros paises cuidemos a los que de otros paises vienen a Euskal Herria a trabajar (incluyo aquí también a las naciones sin estado Galiza, Catalunya, Corsica, ...).

Aunque a lo largo de toda la ponencia, se cita el fenomeno de la inmigración en varios puntos y páginas (pag. 19 punto 115, pag. 21 puntos 135-138, pag. 35 punto 244, pag. 37 punto 250, pag 43 punto 304, ...) y también se analizan sus consecuencias; precariedad, abusos, siniestralidad, ... no se reconoce ni se organiza una estructura para combatir de o que nos estamos quejando en toda la ponencia. Eso si, se proyecta una Secertaría de internacionales con ala intención de movernos en este mundo globalizado y aunar esfuerzos junto con otros sindicatos, movimientos obreros de otros paises ... asimismo se intenta solucionar el tema de la discriminación femenina e intentamos no olvidarnos de nuestros pensionistas. Pero de los inmigrantes ¿quién se acuerda? Leida la ponencia, uno percibe una sensación paternalista., "pobre emigrante, es verdad que lo pasan mal". Pero de esa postura tenemos que huir y articular de verdad algo que nos permita actuar concontundencia también en ese campo.

Por todo esto y para observar una coherencia entre la ponencia y la organización, solicito la creación de una secretaría o área para inmigración-emigración o bien la ampliación de funciones de la Secretaría de internacionales propuesta. Y es que tampoco me parece lógico que nos presentemos ante el mundo y pretendamos que nos acogan cuando nosotros no tenemos ni pretendemos crear los mecanismos suficientes para acoger la clase obrera que de otros paises vienen. Q ue no olvidemos son clase obrera a la que debemos concienciar, euskaldunizar, ...

309. paragrafoa. 36. orrialdea.

Proposamena

Nire ustez beharrezkoa da inmigrazio eta emigrazioaz arduratuko den arloa sortzea edo Nazioarteko Idazkaritzaren funtzioen artean batzea aipatu fenomeno biak: inmigrazio eta emigrazioa

Azalpena

Ponentziak hasiera-hasieratik (7. eta 25. paragrafoa) migrazio fenomenoa politika neoliberal berrien alderik krudel eta arbuiagarriena dela aipatzen du (baina baita politika liberal zaharrena ere). Horren haritik, ponentziak kontuan hartu eta borrokarako helburu izan ebhar duela hgai honek esaten du. Esaterako, 28. paragrafoan zoritxarreko Bolkenstein zuzentarauari buruz hitz egiten du. Argi dago emigrazio-inmigrazio fenomenoa axola zaigula bestela ez baikinake etorkinen (datozenen zein doazenen) eskubideez arduratuko. Hori dela-eta, bat nator 42 paragrafoarekin; hau da, LABek Europa mailako enpresetako komitetan parte hartzeari buruz esaten duenarekin. Baina atzerrira jotzearekin batera, Euskal Herrira datozen herrialdeekin ere lan egin beharko dugula uste dut (besteak beste, Estaturik gabeko nazioekin: Galiza, Catalunya, Corsica ...).

Ponentzia osoan hainbat aldiz errepikatzen da inmigrazioaren fenomenoa; baita honen ondorioak aztertu ere: prekarietatea, ezbehar kopurua, gehiegikeriak, ... ; baina hala ere, ez da proposatu ponentzian salatzen dugun egoerari aurre egiteko egiturarik. Hori bai, Nazioarteko Idazkaritzari dagokionez, mundu globralizatu honetan, beste herrialde batzuetako langile mugimendu eta sindikatuekin lan egiteko asmoa azaltzen da. Halaber, emakumeen bazterketa konpontzea eta pentsionistei irtenbide bat ematea ere plantetzen dugu. Baina norbait gogoratzen al da etorkinez? Ponentzia irakurri ostean, badirudi etorkinekiko errukia sentitzen dugula. Guk,

ordea, ezin dugu horretan geratu. Benetan, irmotasunez jardutea ahalbidetuko digun zerbait egituratu behar dugu alor honetan.

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta eta ponentziaren eta antolakuntzaren artean koherentzia egon dadin; inmigrazio-emigrazio idazkaritza, arloa eratzea edo Nazioarteko Idazkaritzako funtzioetan txertatzea eskatzen dut. Izan ere, ez da logikoa munduaren aurrean aurkeztu nahi izatea; baldin eta guk ez badugu asmorik beste herrialdeetatik datozen langileak hartzeko mekanismo nahikorik jartzeko. Ez dugu ahaztu behar eurak ere langile-klasea osatzen dutela eta euskalduldu, irakatsi eta kotzientziatu egin behar ditugula.

Emendagilea:Pablo César Carral Maceiras

69. emendakina

315. paragrafoa (berria). 37.orrialdea

Proposamena

314. paragrafoaren atzetik berria sortu:

"(315-berria) · Gazte Idazkaritza:

- Funtzioak:

- Gazteria eta prekarietatea enpresa eta herrietan: mapak, sinamizazioa, ... plangintzak egiten lagundu eta bultzatu.

- Sindikatuan gazteekiko lanketa propioak proposatu.

- Gazte mugimenduarekin lotura zuzena ziurtatu.

- Osaketa:

- Zehar lerroko idazkaria.

- Gazte Idazkaria.

- Herrialde eta sektoreetan egon daitezkeen dinamizatzaileak."

Azalpena

Esan bezala, beharrezkoa bada Idazkaritza, funtzioak eta osaketa zehaztu behar dira.

Párrafo 315 (nuevo). Página 44.

Propuesta

"(315-nuevo) Añadir un párrafo después del 314.

· Secretaría de Juventud:

- Funciones:

- La juventud y la precariedad en empresas y pueblos: mapas, dinamización, ... ayudar a hacer planes y fomentarlos.

- Proponer tareas propias de cara a la juventud dentro del sindicato.

- Garantizar la conexión directa con el movimiento juvenil.

- Composición:

- Responsable de transversales.

- Responsable de juventud.

- Posibles dinamizadores de las provincias o sectores."

Motivos

Si realmente se ve necesario que exista una Secretaría de Juventud, habrá que concretar sus funciones y composición.

Emendagilea:Aitziber Barandika

70. emendakina

Párrafo 317. Página 44.

Propuesta

Añadir el siguiente texto al párrafo: *"y/o afectan a este colectivo y que se especifican y desarrollan en la ponencia aprobada en su asamblea fundacional".*

Motivos

Debido a que este área tiene aprobada la ponencia en la que basar su actividad sindical, parece oportuno citarla en este apartado

317. paragrafoa. 11. orrialdea.

Proposamena

Paragrafoa berriadatzi aipamen berria bertan egokituz:

(317) "Arlo honen bitartez, sindikatuak kolektibo honetan dauden dinamikak, arazoak edo arloak berak sortze asanbladan onartutako ponentzian zehaztu eta garatu dituen gaietan parte hartzea bilatzen du.

Azalpena

Arlo honek bere jarduera sindikala zehazten duen ponentzia onartuta daukanez gero, paragrafo honetan aipatzea ondo legoke.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda

71. emendakina

Párrafo 319. Página 44.

Propuesta

Cambiar el párrafo por:

"Vemos necesidad de una estructura fija y permanente por su representatividad"

319. paragrafoa. 38. orrialdea.

Proposamena

Aldatu paragrafoa:

"Bere ordezkaritza dela-eta, egitura iraunkorra izan behar dela pentsatzen dugu.

Emendagilea: Nazio Komitea

72. emendakina

Párrafo 321. Página 45.

Propuesta

Cambiar el la periodicidad:

"Este área será permanente"

321. paragrafoa. 38. orrialdea.

Proposamena
Aldatu maiztasuna:
"Alor hau iraunkorra izango da"

Emendagilea: Nazio Komitea

73. emendakina
Párrafo 4.7.4. (nuevo) Página 45.

Propuesta
Incluir en el 4.7. la creación de una nueva área de trabajadores y trabajadoras autónomos.

Motivos
Entendemos fundamental la creación de este área para abordar toda la problemática especial y concreta de los y las trabajadoras de este colectivo. Actualmente en nuestro sindicato existe un gran número de afiliados y afiliadas autónomos pertenecientes fundamentalmente a los sectores de Construcción, Transportes y Servixios que desde nuestro sindicato no hemos sido capaces de dar la cobertura adecuada.

En nuestra opinión este colectivo esta creciendo de una forma anormal y desmesurada y sin duda alguna las previsiones son de que crezca aún más. Todos y todas somos conscientes del alto nivel de desprotección de este colectivo y entendemos que como sindicato no podemos seguir obviando esta realidad. El potencial de este colectivo puede llegar a ser de gran importancia y nuestro sindicato debiera tomar posiciones ante esta problemática laboral.

Por lo tanto, los enmendantes nos ratificamos en la necesidad de crear esta área con una estructura fija y permanente, al igual que se propone con otras, también de vital importancia, como puede ser "personas jubiladas" etc.

4.7.4 paragrafoa (berria). 38. orrialdea.

Proposamena
Arloen artean, langile autonomoak jasoko dituen arlo berri bat sortzea.

Azalpena
Gure ustez, ezinbestekoa da kolektibo honetako langileen problematika zehatza lantzeko arlo berria sortzea. Gaur egun, sindikatuan autonomoak diren afilaitu ugari ditugu; batez ere eraikuntza, garraioak eta zerbitzuak sektoreetakoak eta guk ez dugu jakin izan hauei behar zutena eskaintzen.

Kolektibo hau neurri gabe ari da hasten eta aurreikusi dezakegu gero eta gehiago zabalduko dela. Kolektibo hau babesik gabe dagoela eta sindikatu gisa ezin dugula albo batera begiratu guztiok dakigu.

Beraz, emendagileon iritziz, arlo hau sortzeko premia izugarria dela berretsi eta premiazkoak ere badiren beste batzuen moduan - pentsionistak esaterako- egitura iraunkorra izan beharko lukeela uste dugu.

Emendagilea: Oskar Kaion Armendariz

Emendakinak

2008ko maiatzaren 22 eta 23an • Barakaldoko BECen

LAB